

*Taupadak
berpiztu!*



Aresketa *
Ikastola

* IKASTOLAK

araba eúskaraz '26

ekainak 14 | Amurrio

Uda bizi, euskara eroso ikasten

Vive el verano aprendiendo
euskera cómodamente

aek
euskara praktikoa



Oihane Alonso,
familia-barnetegiko ikaslea, seme-alabekin

Familia barnetegiak

Euskara ikasteko


Seme-alabekin euskaraz aritzeko

Seme-alabek jarduerak egingo dituzte, hezitzaileek
lagunduta eta euskaraz, gurasoak eskolan dauden bitartean

ADUNA

- Uztailaren 20tik 31ra
- Abuztuaren 3tik 14ra

Informazio gehiago



udabarnetegiak@aec.eus
607 673 541 / 946 464 000

www.aek.eus



araba euskaraz '26

Taupadak berpiztu!

EUSKARAREN TAUPADAK AUZOLANEAN BERPIZTU

Aurkibidea

AGURRAK

Komunitatearen indarra. Aresketa Ikastolako lehendakaria 4

Instant bat. Araba Euskaraz elkarteko lehendakaria 5

IKASTOLAREN 50. URTEURRENA..... 7

IKASLEEN EUSKARA BATZORDEA:

Zer da Euskara batzordea? 12

Zer diote gazteek euskararen inguruan? 13

ARABA EUSKARAZ AMURRION 14

EUSKARAZ BIZITZEKO BALIABIDEEN KUTXA 21

LELOA ETA LOGOA..... 22

ABESTIA ETA BIDEOKLIPA 28

EGITARAUA-GUNEA-IBILBIDEA..... 30

MUNDUTIK IKASTOLARA... 34

...IKASTOLATIK MUNDURA..... 38

IKASTOLAKO PROIEKTUAK:

HH: Zirkulazio autonomoa 40

LH: Irratia..... 40

DBH: Areskasle 41

DBH: Ikasbidaia 42

EUSKARAREN ALDEKO AUZOLANKIDEAK:

AEK..... 46

Aiaraldea Ekintzen Faktoria..... 46

Aiaraldeko Euskalgintzaren Kontseilua 47

BERPIZTU TAUPADAK, EUSKALTZALEOK!..... 48

AUZOLANAREN INDARRA

Material Batzordea 51

Tonbola 53

Lan partekatuaren balioa..... 54

AIARALDEA

Natura eta tradizioa 57

Egoera sozioekonomikoa 59

Komunitatearen indarra

Aurten ohore handiz hartuko dugu Amurrion Araba Euskaraz 2026. Mugarri berezia da gure herriarentzat eta gure ikastolarentzat, eta ilusioz beteta ari gara prestatzen ekainaren 14an ospatuko dugun festa.

Gure jaiaren helburuen artean, kolektibotasunaren eta kooperazioaren balioak berrindartzea dago.

Auzolana betidanik izan da gure komunitatearen oinarri nagusietako bat. Antzinako truke-praktiketan, pertsona bakoitzak bere ekarpena eginez, komunitate osoak egiten zuen aurrera. Gaur egun ere, indarrean jarraitzen du filosofia horrek, eta berbera da auzolanaren muina: denok zerbait ematea, gutxi batzuek dena bere gain hartu behar ez dezaten.

Araba Euskaraz ez da soilik egun bateko jaia: hilabeteetan zehar herrian eta ikastola-komunitatean sortzen den mugimendua da, eta prestaketa-lanetan parte hartzen duten boluntario, guraso, irakasle, langile, ikasle, ikasle ohi eta lagunen konpromisoan eta inplikazioan oinarritzen da.

Gero eta zorrotzagoa eta azkarragoa den gizarte batean bizi gara, eta, askotan, zaila egiten zaigu denbora aurkitzea gure kultura, ohiturak eta hizkuntza zaintzeko.

Gure gizartea gero eta anitzagoa da. Globalizazioak eta migrazio-mugimenduek errealitate plural bat ekarri dute, eta horrek elkarbizitzara, ulermenera eta elkar aberastera bultzatzen gaitu. Testuinguru horretan, ezinbestekoa da inklusioa eta parte-hartzea sustatzea, komunitatera batzen diren pertsonekin partekatuz gure hizkuntza eta kultura, bertako kide aktibo senti daitezen, haiek ere izango direlako etorkizuneko euskal gizartearen ardatz.



Urteak pasa dira herriko hainbat familia, irakasle eta langilek, 1977an, gure ikastolako lehenengo adreilua jarri zutenetik. Testuinguru zail batean eta baliabide mugatuekin, irmo egin zuten euskarazko hezkuntzaren aldeko apustua. Gure ikastolak orduz geroztik izan duen hazkuntzak argi erakusten du bertako kideen konpromisoan eta inplikazioan oinarritzen dela komunitate baten indarra. Horren erakusgarri dira gure herrian kalitatezko hezkuntza euskalduna jaso duten hainbat belaunaldi. Nik -Aresketa Ikastolako ikasle ohi, eta gaur egun, aita naizen aldetik-, harrotasunez bizi dut proiektu kolektibo honen parte izatea.

Hortaz, ez nuke agurtu nahi proiektu honen sorreran eta garapenean bidelagun izan ditugun ikastolako profesionalen lana goraiatu gabe. Bide batez, lekukoa hartzen doazen belaunaldi berriak animatu nahi ditut, halaber, aurrekoek taupadaz taupada eraikitako ametsa gogo eta konpromiso berarekin zaindu eta handituz jarrai dezaten, etorkizunean ere erreferente izaten jarrai dezagun kalitatezko euskarazko hezkuntzan.

Egindakoaz harro, aurrera goaz elkarrekin!
Gora Aresketa Ikastola!

Josu Barrenengoa Aburuza
Aresketa Ikastolako lehendakaria

Istant bat

Istant bat. Horixe baino ez. Segundo baten bueltan ematen den bi faseko ponpaketa-ekintza da bihotz-taupada. Bihotzaren goiko barrunbeetan odola metatu ahala, seinale elektriko bat bidaltzen du bihotzaren taupada-markagailu naturalak, eta, horrela, aurikulen uzkurdura estimulatzen da. Uzkurdura horrek odola bultzatzen du geldirik dauden bihotzaren beheko barrunbeetarantz. Ponpaketa-ekintzaren bigarren fasea bentrikuluak odolez beteta daudenean hasten da. Sortutako txinparta elektrikoak eroanbide elektriko batetik bentrikuluetara hedatzen dira, eta uzkurdura estimulatzen dute. Odola itzul ez dadin, balbula trikuspidak eta mitralak tinko ixten direnez, biriketako eta aortako balbulak irekitzen dira. Eskuineko bentrikuluak odola bultzatzen du biriketara, oxigenatzeko, eta, aldi berean, oxigeno ugariko odola isurtzen da ezkerreko bentrikulutik bihotzera eta gorputzeko beste atal batzuetara. Bentrikuluetako presioa murriztean, balbula trikuspidak eta mitralak irekitzen dira, eta berriz hasten da zikloa.

Istant horretan parte hartzera deitu nahi zaituztegu Arabako zortzi ikastoletatik, ekainaren 14an indartsu bidal dezagun, Amurrioko bihotzetik gainerako txoko guztietara, bihotz orok behar duen uzkurdura estimulatzen duen seinale elektriko hori, guztion artean eragin dezagun gure hizkuntzak bizirauteko behar-beharrezkoa duen txinparta. Bihotzaren goiko barrunbeak jada beteta ditugu urtean zehar, ezker-eskuin, aurrera eramandako kultur zein kirol ekintza anitzekin, euskaratik eta euskaraz sortuak denak. Eta, orain, egun handiaren ataritan gauden honetan, bentrikuluetan metatu duguna ponpatzeko unea iritsi da: Amurrioko parkeak eta kaleak parte-hartze eta bizipozez lepo betetzeko unea da, bihotzaren beheko barrunbeak betetzeko unea, alegia. Horrexek emango baitio bidea euskararen presentzia areagotzeari herrian, eskualdean eta lurraldean. Batetik, euskaldunak ohartarazteko zein garrantzitsua den hizkuntzarekin duten konpromisoa. Bestetik, euskarara hurbildu ez direnei adierazteko hizkuntza hau guztiona dela, baita eurena ere, eta guztiz ona dela, euren ekarpena ere ezinbestekoa baitugu euskararen hurbiltze-bideari ekiteko. Eta, azkenik, Euskal



Herrira heltzen ari diren guztiei ezagutarazteko bizirik dirauen Europako hizkuntzarik zaharrena dugula, haren erabilerak sortzen dituen kilimak erakutsiz, beharrezkoak baititugu, gurekin batera, euskarak iraun dezan.

Istanta berpizteko gonbidapena dira lerro hauek, ponpaketa-ekintza eder honetan parte hartzeko deia. Xalbadorrekin "herria eta hizkuntza" bertso sortan plazaratu bezala, izaera ez dago hezur hutsez osatuta, herria da gorputza eta hizkuntza bihotza, eta bata eta bestea bereizteak ez digu mesederik egingo. Horregatik, hizkuntzari bizia ematen dion zikloari behin eta berriz ekiteko, aukera ezin hobea dugu hau etengabe sortu eta areagotzeko, Aiaraldetik mundura, euskararen taupadarako ezinbestekoa den txinparta hori. Bazatozte Euskal Herriaren gorputzaren eta euskararen bihotzaren taupada berpiztera? Ongi etorri guztioi!

Unai Mendizabal

Araba Euskaraz elkarteko lehendakaria





- Diseinu grafikoa
- Inprimaketa
- Mertzandisinga

adigrafik.eus · 945 890 846

SORPRESA!.eus

Opari pertsonalizatuak euskaraz

Kikarak, poltsak, botilak kamisetak, agendak, irakalseentzako opariak..

sorpresa.eus · info@sorpresa.eus



ALDAY FUNDAZIOA

AL SERVICIO DE LAS PERSONAS
Pertsonen zerbitzura

arberas

- ⊙ Burdindegia industrialia
- ⊙ Eskuzko erreminta eta elektrikoa
- ⊙ Segurtasuna eta lan ekipamendua
- ⊙ Elektrizitatea eta argiztapena
- ⊙ Metrologia eta neurketa
- ⊙ Etxeko tresneria eta garbiketa
- ⊙ Margoa eta dekorazioa



☎ 945 890 136

🌐 www.arberas.es

📍 AMURRIO

- Maskuribai Industrialdea C3
- Frontoi Kalea 7

✉ administracion@arberas.es

A – – MU RRIO

OSAKIDETZAK eta ELEK egiaztatutako osasun-zentroa

- Berariazko tratamendua: Hizkuntza, ahotsa eta entzumena.
- Zailtasunak irakurketan eta idazketan: dislexia.
- Haurren irensketa atipikoa.
- Arreta goiztiarra eta hezkuntza errefortzua.

LOGOPEDIA 

Erregistro zbk. 208/15

Larrinaga 1-Ent.A Amurrio T. 665 714 511
info@amurriologopedia - www.amurriologopedia.com



ARCOS DE QUEJANA
- RESTAURANTE -



T.945 39 93 20
arcosdequejana.com

@arcosdequejana

Abi@9@

JATETXEA

TEL. 945 393 618

info@abi@9@jartetxea.com




Kalitatezko pintxoetan espezialistak.
Pintxoak ekitaldietarako.

AYALA, 2
AMURRIO
945 89 08 51



JOSUNE ALBIZUA eta TXARO BARALLOBRE

Guraso fundatzaileak eta ikastolako amamak

Nolakoak izan ziren Aresketa Ikastolaren lehen urteak?

TXARO BARALLOBRE: Nagusientzako euskara ikastaro batean piztu ziren ikastola sortzeko beharra eta gogoia. Orozkotik zetorren gizon batek musutruk ematen zituen eskolak, eta horrela agertu zen, lehen aldiz, ikastola sortzeko beharra.

Talde horretan biltzen zirenek lehen pausuak eman zituzten: haiek euskara ikasten hasiak zirenez, haien seme-alabek ere euskaraz ikastea nahi zuten. Esan beharra dago talde horretan bazela, seme-alabarik izan ez arren, proiektuarekin % 100ean aurrera egin zuenik.

Zeintzuk izan ziren lehen pausuak?

TXARO BARALLOBRE: Hainbat bilera egin eta 3 urteko gela osatzea lortu zen, ume horien artean bik -gutxienez- 2 urte bazituzten ere.. Ondoren, irakaslea eta ikasgela bilatu behar ziren. Lehen gela Mendiko Lagunak elkarteak utzitako solairuartekoan kokatu zen, eta Maite Oyanguren izan zen gure lehen andereñoa. Lehen urte horretan, gurasook txandak egiten genituen patio orduan umeak zaintzeko, parkea baitzen patioa.

JOSUNE ALBIZUA: Handik, Mendiko eskolako lur-eremuetara pasa ginen. Bertan ez zegoen ezer, hutsetik abiatu ginen. Eraikinak erosteko -modulu prefabrikatuak-, Errioxara joan ginen eta, horiek instalatu ondoren, gainerako lanak ere guk geuk egin genituen.

Nolakoak izan ziren gurasoen parte hartzea?

JOSUNE ALBIZUA: Gurasoon parte hartzea oso aktiboa zen, nahitaezkoa aurrera egiteko! Hainbat urtez Amurrioko jaietan txosna ipini genuen dirua biltzeko eta, ondo funtzionatu zuenez, urtean zehar ere zabalik mantendu zen; sekulako arrakasta zuten txintxorta bokatek! Kamisetak ere saldu genituen, beti geunden laguntzeko prest; bakoitzak bere aletxoa ipintzen zuen... Irakasleren bat falta bazen, gu sartzen ginen gelan genekiena irakasteko: sukaldaritza, joskintza, erlijioa... Eta eskola-kirola ere martxan ipini genuen herriko jende askoren laguntzarekin.



TXARO BARALLOBRE: Lan handia egin behar izan genuen, hamaika gauza egin genituen dirua lortzeko: txosna muntatu, garai hartan modan zeuden euskal musika festibalak antolatu eta dirulaguntzak non-nahi bilatu! Gogoan dut Eusko Jaurlaritza aurrean manifestatu ginela -adreiluak eskutan- eraikin berria aldarrikatzeko

Ikastolak herriko bizimoduan eragin al zuen?

JOSUNE ALBIZUA: Nire ustez, ikastola gakoa izan da herri honen bizimoduan: hainbat euskal tradizio berreskuratu dira -hala nola Olentzeroren eguna- eta bultzada handia eman zaio euskararen erabilerari.

TXARO BARALLOBRE: Garaia konplexua zen eta onarpena lortzea ez zen beti erraza izan. Hala ere, gure helburua lortu genuen: euskara berreskuratzea eta indartzea. Gainera, inguruko herrietako umeak ere ikastolan matrikulatzen hasi ziren.

Alde handia al dago hasierako eta egungo ikastolaren artean?

TXARO BARALLOBRE: Oso harro gaude egindako lanaz, horri esker nire seme-alabek eta ilobek euskaraz ikasteko aukera izan dute eta.

Lehen, harremana familiarterkoa zen, irakasleekin ere elkartzen ginen afariak egiteko. Oso familia gutxi ginenez, tratua ere oso hurbila zen. Gaur egun, Aresketa ikastola handia da eta, hortaz, zaila da ohitura horiei eustea. Hala ere, ziur nago egungo funtzionamendua ere bikaina dela.

JOSUNE ALBIZUA: Hasierako ikastolak eta egungo ikastolak ezer gutxi dute komunean. Ez ziren garai errazak izan eta edozer lortzeko borroka egin behar genuen. Gure arteko harremanak oso estuak ziren eta ikastolatik kanpo ere elkartzen ginen. Gogoan dut edozein ekintzatarako dirua behar zenean, ikasleek gurasoentzako afariak antolatzen zituztela nire gurasoen tabernan. Nire amak afaria prestatu eta ikasleek zerbitzari lanak egiten zituzten... horren truke dirua ematen zitzaien.

Pozik nago garai hartan hartutako erabakiarekin; guraso talde baten ausardiari esker, asko da guztiok irabazi duguna. Orain ilobak dira ikastolako ikasleak, nagusienak amaitu zuenean emozionatu nintzen... norik esango zigun horren ibilbide oparoa izango zuenik gure ikastolak!



LOLI ALMANCHEL

Lehen, ama; orain,
amama

Zergatik ikastola?

Lehenik eta behin, nire esker ona helarazi nahi diet gure herrian euskararen lehen haziak erein zituzten gizon-emakume guztiei, hasierakoak ez baitziren garai errazak izan.

Gerora ere, ikastolak egoera zailak bizi izan zituen urteetan zehar. Ikastolak egindako aldarrikapen guztiek -bidezkoak eta beharrezkoak- Amurrioko herriaren babesa jaso izan dute beti; horiek horrela, egun ozen esan dezakegu, herri oso bati esker, ikastola indartsua eta euskalduna lortu dugula.

Lehen hazien fruituak helduak dira jada, eta aipagarria da euskarak eta euskal kulturak haiengan -eta, kasu askotan, baita haien ondorengoetan ere- piztutakoa, sustatutakoa.

Ni migratzaile izan nintzen, eta oso harro nago euskararen berreskurapenean parte hartu izanaz. Euskal Herrira iritsi nintzenetik argi izan nuen herri hau eta bere kultura maitatzen irakatsi behar niela nire seme-alabei, eta, horretarako, hizkuntza ikasi behar zuten. Uste dut aise lortu dudala, eta harro sentitzen naiz.



BIDERDI

Askotariko garagardoak
Pintxoak
Eramateko tortillak

Jose de Madinabeitia Kalea 8
AMURRIO



bebidas serrano

EUSKARA

*Ikasi
Erabili*

Zurea egjin'

mondragon**Lingua**

by MLAKOOP

araba 
euskaraz '26
Taupadak berpiztu!

envāses

Euskararekin bat



www.envases-group.com

Batzoki

ALBINARRATE

Gosari eta pintxo anitzak
barran edo eramateko

8:00etatik aurrera irekita

Fronton kalea, 4. Amurrio. 945 56 33 67

BYRUTXAGA

H A R A K I N T Z A K



ABEREZAINZA, EGINDAKO PRODUKTUAK ETA HARATEGI PROPIOAK

Txistorra, txorizo eta odolkiak gure marka
propioarekin egiten ditugu, duela 70 urte baino
gehiagotik.

Txuleta berezian espezializatuak.

Poligono Aldaiturriaga, 16 • Amurrio
T. 635 742 672 - 606 456 671

HARATEGIA: Elexondo, 15 - T. 945 890 186
burutxagaic@gmail.com

Burutxaga Harategiak

Burutxaga Hestebeteak

Parriada eta ekitaldiak antolatzen ditugu: elkarreak, partikularrak eta enpresak.
Aurrekoizatuak eta Delicatessen - Txarkuteri produktuak

KRISTALDEGIA J. MELLADO

JAVIER MELLADO

Bainuko manparak / Markoak eta moldurak

Tfnoa. 945 89 21 30 -669 31 91 28

crisalmellado.javi@gmail.com

Pol. Aldaiturriaga, 39 - AMURRIO

EKIN

EKIN CONSULTORIA

Jasangarritasuna • Berdintasuna • Kudeaketa sistemak

info@ekinconsultoria.com

Armurubenta 3. zk., Amurrio



EGIN ZURE ENKARGUA

Mirian
618 836 139

Juan Carlos
675 942 804

Aldaiturriaga industrialdea
17-18 pab. AMURRIO

PAELLAK

marisko, valentziar
erara, arroz beltza,
fideua...

OILASKO ERREAK

- ETXEKO MARMELADAK
- PIPER POTOAK bertan erretakoak
- KM 0 PRODUKTUAK



ELEKTROHOB

ELECTRÓNICA, ELECTRICIDAD Y ACCESORIOS

**KONTRATATU FIBRA ETA TELEFONIA GERTUKO PERTSONEKIN
CONTRATA TU FIBRA Y TELEFONÍA CON PERSONAS DE CONFIANZA**

Más de 35 años nos avalan · Porque la cercanía hoy en día es muy importante

Etxegoien bidea, 1 - AMURRIO · Tel. 945 89 13 46



Zer da Euskara batzordea?

DBHko maila guztietako ikasleok osatzen dugu batzorde hau, DBHko 1. mailatik 4. mailaraino, eta gela bakoitzetik bi kide joan ohi gara bileretara. Aurten, ikasle hauek gara parte hartzaileak: DBHko 1. mailan, Nerea Gonzalez, June Saratxaga, Ane Ramos eta Hegoa Roiz; DBHko 2. mailan, Aitzol Retes, Ixone Yarrantu, Aroa Castellanos eta Elene Fernandez; DBHko 3. mailan, Nora Saratxaga, June Cuadra, Ekain Luyando eta Ager Gotxi, eta DBHko 4. mailan, June Sanchoyerto, Peru Zaballa, Martin Diaz eta Iker Ruano.

Helburu nagusiak gure komunitatean, ikastolan, euskara sustatzea eta eredu izatea dira, eta, horretarako, era askotako ekimenak antolatzea, erabileran eragiteko.

Euskararen inguruko hausnarketa saioak egin ditugu, kontzientzia hartzeko eta egoeraz jabetzeko.

Aurten Araba Euskaraz "Taupadak berpiztu" ospatuko dugunez, oso gogotsu gaude ekintza ugari martxan jartzeko eta jendea motibatuzko.

Araba Euskaraz aurkezpen-ekitaldian parte hartu genuen, urriaren 10ean.

Zer diote gazteek euskararen inguruan?

Euskara batzordeko bi kidek, Peru Zaballak eta June Sanchoyertok, hain zuzen ere, ikastolako kide ugarirengana jo dute euskararen inguruko iritziak jasotzeko asmoz. Hona hemen jasotako iritziak:

LH 5: Axular Ezkurza eta Naiade Puertas

Zer da zuretzat ikastola? Ikastola, guretzat, ikasteko leku bat da, eta lagunak egiteko leku hoberena.

Nola bizi izan duzu Araba Euskaraz? Oso ondo pasatzeko lekua da. Eta, garrantzitsuena, euskara sustatzeko lekua.

Nola ikusten duzu euskararen egoera? Gero eta jende gutxiagok hitz egiten du, oso zaila iruditzen zaielako.

LH 4: Mare Gilsanz, Lucia Maurologoitia eta Oinatz Montes

Zer da zuretzat ikastola? Euskaraz hitz egiten eta euskara mantentzen laguntzen digun lekua. Ikasteko lekua. Eremu euskalduna.

Nola bizi izan duzu Araba Euskaraz? Oso ondo pasatu izan dugu. Politia da, dibertigarria...

Nola ikusten duzu euskararen egoera? Beste urte batzuetan baino gutxiago erabiltzen da, jendeak esfortzu gutxiago egiten du. Euskaraz gehiago hitz egin behar da eta ahalegin handiagoa egin.

LH 3: Valentina Diaz de Corcuera, Markel Salvador eta Madalen Lopez

Zer da zuretzat ikastola? Ikasteko leku aproposa, baina, garrantzitsuagoa dena, ondo pasatzeko eremua. Zoragarria.

Nola bizi izan duzu Araba Euskaraz? Oso ondo pasatzeko lekua da, eta lagunak egin ditzakezu ikasten duzun bitartean.

Nola ikusten duzu euskararen egoera? Gero eta okerrago, galtzen ari delako.

LH 2: Peru Aldama eta Sare Arrieta, Uxue Ornes, Izare Arbide eta Mei Senperena

Zer da zuretzat ikastola? Ikasteko, gauzak egiteko lekua, eta euskara erabiltzeko tokia. Ikasteko eta ondo pasatzeko tokia ere bai.

Nola bizi izan duzu Araba Euskaraz? Oso ondo pasatu izan dugu, euskara sustatzeko leku bikaina da.

Nola ikusten duzu euskararen egoera? Gero eta gutxiago hitz egiten da, ez delako asko lantzen. Gure ustez, euskara ez desagertzeko, gurasoekin eta lagunekin euskaraz gehiago hitz egitea da inportanteena. Denbora librean ere euskaraz egitea, hau da, patioan...

DBH 3: Ekain Luyando

Zer da zuretzat ikastola? Nire bigarren etxea da, ordu gehiago pasatzen ditut hemen etxean baino, eta ondo pasatzen dut beti.

Nola bizi izan duzu Araba Euskaraz? Oso ondo pasatu nuen aurreko Araba Euskarazean, eta aurtengoa, nire ustez, hobea izango da. Lagunak egiteko leku oso ona da, baita euskara sustatzeko ere.

Nola ikusten duzu euskararen egoera? Beherakada oso larria bizitzen ari gara, umeek gero eta gehiago egiten dute gaztelaniaz. Nire ustez, umeak ohitura hartzen ari dira gaztelaniaz mintzatzeko.

DBH 4: Peru Zaballa eta June Sanchoyerto

Zer da zuretzat ikastola? Ikastola guretzat dena izan da, txikitatik egon gara bertan, familia batean bezala sentitzen zara. Arazo bat duzunean, beti laguntzeko prest egoten da edonor. LHn ez zara konsziente biziko duzun guztia betirako izango dela, eta DBH4ra iristen zarenean ez duzu ikastolatik joan nahi. Askok gustatzen zaigu ikasketa modua, balio asko helarazten dizkigute, euskara sustatzea da haien ideia nagusia, eta asko nabaritzen da hori.

Nola bizi izan duzu Araba Euskaraz? Guretzat Araba Euskaraz ikaragarria izan da joan garen urte guztietan, aukera ikaragarria da gure adineko jendea ezagutzeko eta beraiekin euskaraz hitz egiteko. Gure ustez, euskara sustatzeko ideia bikaina da, baita ikastolei ikusgarritasuna emateko ere.

Nola ikusten duzu euskararen egoera? Ez dago bere momentu onenean, egia esan. Alde batetik, gazteak garen aldetik, ikusten dugu jende askok euskaraz hitz egitea gustuko duela, baina lotsa ematen digula euskaraz egiteak, "arraroak" ematen dugulako; hori aldatu beharra dago. Beste alde batetik, euskara ikasi nahi duen jendeak pentsatzen du zaila dela, baina irudi hori alda daiteke guk euskaraz hitz egiten badugu.

ARABA EUSKARAZ AMURRION: Duela 40 urte ospatu zen Amurrion lehenengoz Araba Euskaraz... urteak pasa dira!!

1986. "ARABAN BULTZA EUSKARAREN MARTXA"



1986an antolatu zen Amurrion lehenbiziko aldiz Araba Euskaraz ekimena. Garai hartako antolaketa ez zen soilik Aresketa Ikastolaren esku

egon. Izan ere, euskararen egoeraz arduratuta zeuden beste eskola batzuetako zenbait irakaslek eta AEK-k buru belarri jardun zuten ikastolarekin batera lanean haren antolaketan.



Urte hartako logoa ikastolako irakaslea den **Alberto Torresek** sortu zuen, eta Araban euskararen erabilera bultzatzeko deia egiten zuen leloak: "Araban bultza euskararen martxa".

Arlo ekonomikoari dagokionean, nabarmentzekoa da lortu ziren sosak ez zirela ikastolaren proiektua zuzenean bultzatzeko erabili, baizik eta erdibitu egin zirela: jasotakoaren erdia gaur egun ere Iparraldeko ikastolak batzen dituen Seaska erakundeari eman zitzaion, bertoko proiektuak bultzatzeko; beste erdia, aldiz, Amurrio herrian antolatuko ziren euskararen aldeko ekimenak finantzatzeko erabili zen.



1996. "EUSKARA GUZTIZONA"



1996an ekin zion Aresketa Ikastolak Amurrion bigarrenez Araba Euskaraz ekimena antolatzeari. Edizio hartan, hizki

batek ematen zion berezitasuna aukeratutako leloari, leloaren erdian "dantzari" zegoen "z" batek, hain zuzen ere: "Euskara guztizona" leloak bi irakurketa zituen: Zrik gabe "euskara guztizona" dela adierazi nahi izan genuen, eta Zrekin, aldiz, euskara -gainerako hizkuntzak bezala- "guztizona" dela, aberasgarria, zaindu beharrekoa...

Eguneko egitarauaz gain, alde zurretiko programazioa ere oparoa izan zen. Goi-mailako ikuskizunak antolatu ziren, eta, hala, argi erakutsi zen euskal kulturaren arlo desberdinetan jarduten zuten eragileek gaitasuna zutela ekitaldiak euskaraz eta kalitate handiz ekoizteko:



- **Kukubiltxo** talde ospetsuaren Bazen behin... antzezlanaren estreinaldia egin zen Araban.
- Jesus Mari Garateren ekimenez, **Gozategi** taldeak eta **Edu Muruamendiaraz** dantzariak -Aukeran dantza-konpainiaren sortzailea-, dantza tradizionalak eta garaikideak uztartuz, euskal dantza garaikidearen hastapenaren mugarrietakotzat joenezakeen ikuskizuna plazaratu zuten.
- Euskal Herriko Haurren Euskal Kantu Txapelketaren saioa egin zen.
- **Oskorri** taldeak bere 25. urteurrena ospatzeko sortutako kantaldia eskaini zuen.

Urte hartako kantari bagagozkio, **Danba** taldeak musikatu zuen **Juanjo Respaldiza** bertsolariak sortutako letra: "Agure bizarzuria, aspaldi joana...". Garai hartan CDak kaleratzen ziren, baina ez zen bideoklipik egiten.

Aipatzekoa da, halaber, garai hartan ospe handia zuen **Exkixu** taldeak azken emanaldietako bat eskaini zuela Araba Euskaraz egunean.

2005. "EKIOZU BIDEARI"



Aurreko edizioetan Araban euskararen martxa bultzatzearen beharra eta euskararen ezaugarri eta onurak oinarritzat hartzen baziren ere, **2005**eko edizioan euskararen erabilera eta ezagutza, etsi gabe, bidean (praktikan) jartzeko deia zabaldu nahi izan genuen: "**Ekiozu bideari**".

Logotipoa sortzeko, euskal artista handienetako batekin jarri ginen harremanetan, **Jose Luis Zumetarekin**, alegia. Askatasun osoa izan zuen sormen lana ekoizteko eta, hala, era guztietako interpretazioak izan zituen hiru buruko txoriaren irudi ospetsua margotu zigun.

Logoak erronka berezi bezain polita eragin zigun kanpaina salgai jarri ohi den materiala ekoizteko, baina, aldi berean, irudi hari esker, diseinu berritzaile eta ausartak lortu zituen Aiaraldeko Grafik enpresak.

Kanta **Ken Zazpi** taldeak sortu zuen. Ken Zazpi taldeko **Eñaut Elorrieta**k irakasle ziharduen Durangoko Ibaizabal Ikastolan, eta harekin izan ziren lehenengo harremanak. Bigarren hitzordu bat ere egin genuen, Eñaut Elorrietaekin berarekin eta **Jon Mikel Arronategi**ekin, euren entsegu-lokalean. Luze hitz egin genuen euskararen egoeraz, gure ikastolaren zereginaz, historiaz eta urte hartako Araba Euskaraz ekimenaren helburuez, eta baiezkoa eman zioten gure kanta sortzeko eskaerari.

Egun hartako egitarauan, plaza eskaini genien Amurrioko Musika Eskolako ikasleei, herrikoek nahiz kanpotik etorritakoek urteetako lanaren emaitzaz gozatu ahal izan zezaten.

2013. "MIHIAN KILI-KILI, EUSKARAZ IBILI"



Leloak, berriro ere, erabilera sustatzeko dei zuzena egiten zuen: "Mihian kili-kili, euskaraz ibili". Logoaren diseinua

Laudioko Grafik enpresak garatu zuen: izartxo edo asterisko bat zen, tipografia desberdinetan, eta hauxe adierazi nahi izan genuen: gustuko zerbaite jaten dugunean bezalaxe, euskara erabiltzen dugunean ere "eferbeszentzia" goxo bat sortzen zaigu ahoan, txikitari Petazeta jateak eragiten zigun zirraren antzekoa.

Kantaren egilea **Igon Olaguenaga** musikari, trikitilari eta Aresketa Ikastolako ikasle ohia izan zen. Lehendabizikoz, bideoklipa ekoiztu genuen. Amurrioko zinegile eta ikastolako aita zen **Luis Vil** arduratu zen bideokliparen grabaketaz.

Abestian, **Naroa Gaintzak**, **Zuriñe Hildalgok**, **Mikel Markezek**, **Imanol Ubedak**, **Canteca de Macaoko Txikik**, **Unai Mendibilek**, **Iñaki Vinasprek** eta **Igon Olaguenaga**k berak hartu zuten parte. Aresketa Ikastolan bertan grabatu zen bideoklipa, eta, arestian aipatutako abeslarietz gain, **gurasoek** eta **ikasleek** ere hartu zuten parte.

2016ko otsailean, historian lehenengo aldiz, **Alex Txikon**ek neguko igoera osatu zuen Nanga Parbatera (8.126 m), eta arreta berezia eskaini genion igoera horri, hilabete batzuk lehenago espedizioaren aurkezpena egin baitzuen Amurrión, Araba Euskaraz ekimenaren baitan.

Araba Euskaraz egunean, **Erramun Martikorena** kantautorearen bisita izan genuen, omenaldia egin baitzion Araba Euskarazek, euskarazko sormenari egin dion ekarpen aberatsagatik.

2020. "DARABAGU"



Edizio hartan, ikastolako komunitatearekin antolatutako sormen-tailer baten bidez ekin genion logotipoa aukeratzeari. T-Tailer

baterako deialdia eginda, 100 guraso eta ikasle baino gehiago lotu ginen larunbat goiz batean, ikastolako ikasle izan ziren hainbat artistaren gidaritzapean, artelan anitzak sortzeko irrikaz.

Sortu genituen lan guztien artean, logotipo baten ezaugarri nabarmenenak izan zitzaizkiren lanak aukeratu ziren, ondoren, denon artean, bat hautatzeko.





Leloa ere antzera hautatu zen: balizko leloak aurkezteko deia luzatu zitzaion ikastolako komunitateari, eta, bidalitakoen artean, hitz-joko bat adierazten zuen hitz berri-asmatu bat aukeratu zen:

Euskara DARAMAGU + euskara ARABA = DARABAGU.

Kantari dagokionez, berriro ere **Igon Olaguenagak** hartu zuen bere gain abestia sortzeko ardura, **Egoitz Uriarte** musikariaren laguntzarekin. Estudioko grabazioa ozta-ozta egin ahal izan zen, pandemia betean sartu bainan ondoren.

Bideoklipa, berriz ere, **Luis Vilen** esku egon zen. Pandemiaren ondorioz, ikastolako gimnasioan grabatu behar izan genuen kantariekin, kromaren teknika erabiliz.

Hauek izan ziren kantari ahotsa jarri zioten kantariak: eskualdeko **Sabin Guaresti** eta **Aiala Mendietaz** gain, **Maria Amolategi**, **Xabi Solano** eta **Iñaki Otxondorena "Moro"**.

2020ko edizioa bete-betean egon zen Covid-19ak sortutako pandemiaren eraginpean. Hala ere, pandemian sartu aurretik, hainbat ekitaldi antolatu ahal izan genituen: herriko plazan umeentzako tailerrak, herri bazkaria eta musika emanaldia, eta, artearen munduan emakumeak ahalduentzako asmoz, euren lanez eta hitzaldi soilez osatutako astebeteko egitaraua.

Konfinamendutik nolabait ateratzen hasi ginenean, luze eta sakon eztabaidatu genuen ea komenigarria izango litzatekeen zenbait ekitaldi antolatzea, eta ondorioztatu genuen lagungarri izan zitezkeela etengabe aipatzen zen pandemia aurreko "normaltasunera" itzultzeko. Horrela, ekitaldi sortaile bat antolatu genuen Ahotsenearekin elkarlanean: Euskal musikaren uzta berria. Amurrio Antzokian bertan eskaini zen musika-talde berrien uzta, aforo mugatuarekin eta pandemiaren ondoren ezarritako baldintzak betez, eta, gainera, Aiaraldea Komunikazioari esker, streaming bidez zabaldu ahal izan zen Euskal Herri osora.

Bide batez, **Loli Garcia**, **Eukene Larrea** eta **Kathya Ortuzar** ikastolako ama eta langile nekazekin omentzeko baliatu genuen Amurrio Antzokiko ekitaldi hura.

Ohikoak izaten diren ibilbidea eta guneak, hala ere, bertan behera geratu ziren.

Antolatutako ekimen guztietan lortutako dirua, lehenengo edizioa salbu, Aresketa Ikastolako proiektua aurrera atera ahal izateko erabili da. Hain zuzen ere, proiektu hauek gauzatu ahal izan dira lan horri guztiari esker: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ezartzeko egin beharreko lanak, patio estalia, Haur Hezkuntzan metodologia aldatu ahal izateko egin behar ziren erreformak...



TALLER J. BORDAGARAY

**POL. IND. ALDAYTURRIAGA, 8
01470 AMURRIO ALAVA**

email: tjbordagaray@yahoo.es


WWW.TALLERJBORDAGARAY.ES

40. URTEURRENA

TXOKO GORRI



1986-2026

Iturralde kalea 1, Amurrio, Araba · 945 89 24 37 ·  @txokogorriamurriorena

vibancar

Soluciones Logísticas
Konponbide Logistikoak

EUSKARAZ BIZITZEKO BALIABIDEEN KUTXA

KOMUNIKABIDEAK

Aiaraldea

<https://aiaraldea.eus/>



Alea, Arabako albisteak

<https://alea.eus/>



Berria

<https://www.berria.eus/>



Gaztezulo

<https://www.gaztezulo.eus/>



Argia

<https://www.argia.eus/>



PODCASTAK

Aiaraldea, Bazter Itxia

<https://aiaraldea.eus/komunitatea/BazterItxia>



Berria

<https://www.berria.eus/podcastak>



Argia

<https://www.argia.eus/multimedia/podcastak>



Eitb, guau

<https://guau.eus/podcastak>



Eidabe ekimen kulturalak

<https://eidabe.com/pod-cast-piztu-2024/>



IKUS-ENTZUNEZKOAK

Argia Multimedia

<https://www.argia.eus/multimedia>



Primeran

<https://primeran.eus/>



Makusi

<https://makusi.eus/>



ZerNonIkusi

www.zernonikusi.eus



JOLASAK

Egunean behin

<https://labur.eus/EguneanBehin>



Berbaxerka

<https://www.berria.eus/berbaxerka/>



Tagzania

<https://sustatu.eus/codesyntax/1742805443>



Hitziki

<https://hitziki.com/juegos/hitziki/>



Game Erauntsia, Bideojokoak

<https://gamerauntsia.eus/>



TEKNOLOGIA BERRIAK

Itzuli itzultzaile neuronalak

<https://www.euskadi.eus/itzuli/>



Xuxen zuzentzaile ortografikoa

<https://xuxen.eus/>



Telefona eta ordenagailua euskaraz

<https://www.lehenhitza.eus/konfiguratu>



EUSKALTZAINDIA

Pertsona izenak

<https://labur.eus/EuskaltzaindiaPertsonak>



Leku izenak

<https://labur.eus/EuskaltzaindiaLekuak>



Zalantzen txokoa

<https://labur.eus/EuskaltzaindiaZalantzak>



Aruak

<https://labur.eus/EuskaltzaindiaAruak>



HIZTEGIAK

Elhuyar

<https://www.euskadi.eus/elhuyar-hiztegia/>



Labayru

<https://hiztegia.labayru.eus/?locale=es>



Sinonimoen hiztegia

<https://uzei.eus/baliabideak/sinonimoen-hiztegia-online/>



Hiztegi terminologikoak

<https://labur.eus/IVAPHiztegiTerminologikoak>



BESTELAKOAK

Gookapi, haurrentzako ikus-entzunezkoak eta material didaktikoa

<https://www.go.gookapi.com/material-didaktikoak>



Mantangorri, BERRIren haurrentzako gehigarria

<https://www.berria.eus/mantangorri/>



Ikasgela, BERRIren hezkuntzarako edukiak

<https://www.berria.eus/ikasgela/>



Badok, BERRIren euskal musikaren inguruko edukiak

<https://www.badok.eus>



Eranafarroa, Nafarroako euskara zerbitzuek euskaraz ikasten duten haurrentzako sortua

<https://eranafarroa.eus/>



Geruzak, Gazteen eguneroko kezka eta galderari erantzuteko ikus-entzunezkoen sorta

www.geruzak.eus



Galtzagorri, Haur eta Gazte Literaturaren inguruko baliabideak

<https://www.ibbygaltzagorri.eus/eu>



Gotzon Garateren atsotitz bilduma

<https://gga.ametzagaina.eus/bbk/htdocs/hasiera.htm>



Armiarma, Lokuzioen bilduma

<https://intza.armiarma.eus>



Leloa eta logoa

Araba Euskaraz antolatzekeo ardura izango genuela jakin genuenean, egin beharreko lehenengo lanari ekin genion: erabaki behar genuen zer helburu izan behar duen antolatuko dugun ekimen honek.

Argi dago euskararen aldeko ekimen gehienetan helburu ekonomiko bat egoten dela, antolatzaileon proiektuak, edozein dela ere, sostengu ekonomiko behar izaten baitu aurrera egingo badu; eta, zoritxarrez, gure proiektua ez da salbuespena.

Baina argi genuen, helburu ekonomiko horretatik haratago, bestelako helburu batzuk ere badituela Araba Euskaraz ekimenak, eta zein diren zehazteari ekin genion.

Nondik hasi, ordea?

Bada, deialdia luzatu genien Aresketa Ikastolako kideei, geure komunitateari, alegia.

Gurean orain arte antolatutakoek zer eman zuten berraztertu genuen.

Taldekako ariketa egin genuen, Amurrioko euskararen egoerari eta gure proiektuari buruzko hausnarketa bultzatuz.

Hausnarketa horretatik ateratako konklusioak oinarri hartuta eta ikastolakide guztiei jakinarazita, leloak bidaltzeko eskatu genuen. Leloak bidaltzeko epea amaitu zenean, horien berri eman eta bozkatzeko aukera zabaldu genuen.

Euskararen egoera larritzat jo genuen eta, berrindartze prozesu baten beharraz ohartuta, horixe islatzen zuen leloa aukeratu genuen: geldirik dagoen bihotzaren "taupadak berpiztu" beharrea gaude.

Leloa aukeratu ostean, Ikastolen Elkartean irudiez arduratzen den lantaldeari igorri genion. Leloa nahiz analisitik ateratako konklusioak aztertuta, logotipoa sortzeko hainbat proposamen aurkeztu zizkiguten, eta, ideiak ikastolakideekin batera garatuz, ekimenerako erabiltzen ari garen logotipoa sortu genuen: bihotz bat txinparta batek zeharkatuta, elektrokardiograma batek gaixoa berpizteko duen funtzioaren erakusgarri.

Aurtengo leloa "Taupadak berpiztu" da.

Taupadek erritmoa markatzen dute; taupadek esaten digute bihotza martxan dugula; taupadek adierazten dute bizirik gaudela.

Euskaldunok euskara daramagu bihotzean, eta taupadak behar ditugu euskara bihotzetik burura eta mihira eramateko.

Azterketek eta datuek esaten digute euskararen erabilerak erritmoa galdu duela, ezagutza eta erabilera deskonpasatuta doazela, korronte zuzeneko bulkada bat behar dugula bihotzera.

Horixe egingo dugu, Amurriotik Araba osora, bulkada handi bat emango diogu euskarari, taupadak berpiztuko ditugu.



LOGOA

Bihotz bat txinparta batek zeharkatuta, horixe aukeratu dugu aurtengo logotipoa izateko. Hain zuzen ere, korronte zuzeneko txinparta batek zeharkatzen du bihotza, taupadak berpizteko korronte zuzeneko txinparta batek, eta bihotza mugimenduan dagoela islatzen dute inguruko marratxoek. Txinparta horrek, beraz, taupaka jartzen du berrira bihotza, hau da, taupadak berpizten ditu.





Bizikletak *berpiztu!*

2cyBIKES
www.2cybikes.eus

Hiriko
2cykleta

Berregokituak
eta Elektrifikatuak




ARTOMAÑA
Txakolina



ACHA
1831tik *Destilategia*

Ezagutu gure destilategia



Transportes Azul Marino 2000, S.L.
Garraioak

AZUL MARINO

Tfnos.: 689 196 925 - 608 144 720



GENERALI

Aseguru perfektua
bilatzea, inoiz ez da hain
erreza izan!



Kotxea, Etxea, Inbertsioak, Bizitza aurrezkiak,
Komertzioa, Istripuak, Heriotza Asegurua...

ARITZ AMORRORTU ETXEBARRIA

Agente eksklusiboa

946 610 361 - 688 856 744

aritzamorrortu@generalimediadores.es

Sastegi 1 behea, OROZKO



RAILWAY
SYSTEMS

by voestalpine

Loramendi



AK

aurrenak

Euskarara guztiona da.

Ekainaren 14an zatoz Amurriora!

CLÍNICA DENTAL

OROZKO

HORTZ-KLINIKA

HITZORDUA / CITA: 688678604-946610419

LEHENDAKARI AGUIRRE PLAZA 8 BEHEA
OROZKO -BIZKAIA

DR. JOSE W. MORALES

KIRURGIALARI DENTISTA ESPEZIALISTA - CIRUJANO DENTISTA ESPEZIALISTA



HORTZ TRATAMENDUAK LASERREKIN

DX 3Dn

INPLANTEAK-ORTODONTZIA

PADI-PROTESIAAK-ESTETIKA

ZURITZEAK, ERRONKOPATIAK

TRATAMIENTOS DENTALES CON LASER

DX en 3D

IMPLANTES-ORTODONCIA

PADI-PROTESIS-ESTETICA

BLANQUEAMIENTOS-RONCOPATIAS



amurrio
ferrocarril y equipos, s.a.

Gure bideak,
herri baten taupada



Seguros

ORTIZ DE ZÁRATE 2023
Jon Pinedo Ortiz de Zárate

▶ Iturralde, 1 • AMURRIO
Tfnos.: 945 890 450
688 62 62 47
aiala@agencia.axa-seguros.es
www.asesoriaaiala.com

/ Especialistas en Seguros de Vida-Autónomos-Empresas
Seguros de Responsabilidad Civil-Hogar-Salud-Inversiones

/ Bizi-aseguruak / Autonomoak / Entresak
Erantzunkizun zibila / Etxebizitza / Osasuna / Inbertsioak

LOS SEGUROS SON COMO EL VINO,
SI USTED NO NOTA LA DIFERENCIA
¡ELIJA EL MÁS BARATO!
(PERO NO SE QUEJE DEL DOLOR DE CABEZA
AL DÍA SIGUIENTE).

Aseguruak **ardoa** bezalakox-
ea dira, alderik nabaritzen
ez baduzu ... **merkeena**
aukeratu!,
baina ez zaitetz hurrengo
eguneko buruko minaz kexa!








**EMBALAJES
URKIJJO**

Egurrezko Bilgarrien Soluzioak

Soluciones de Embalaje de Madera



 Aiarako industrialdea, Par. 14 – 01479 Murga (Araba)  (+34) 945891243  administracion@embalajesurkijo.com

GANORA

 **KOPAS**

- 3D TEKNOLOGIA -
- DISEINUA ETA GARAPENA -
- GRABATUA ETA EBAKETA -
- INPRIMAKETA ETA ERROTULAZIOA -
- MERCHANDISINGA -

kopas@kopas.es

Aialako Industrialdea, 8 01479 MURGA - AIARA Tfno.: 945.39.94.05

Alda. Urkijo, 88-2º 48013 BILBO Tfno.: 94.442.22.24

w w w . g a n o r a . e u s

Abestia eta bideoklipa

Igon Olaguenagaren eta Txiki Loraren "Taupadak berpiztu!" abestiak euskararen aldeko aldarria egiten du musika-estilo anitz eta dantzagarriak erabiliz. "Taupadak berpiztu!" abestiaren letrak zuzenean egiten dio dei euskara biziberritzeko beharrari, herriaren bihotzaren taupadak -bihotz-joera kolektiboa- berpizteko beharrari, alegia.

Abestiaren hitzek hausnarketa sakona egiten dute euskararen egoeraren inguruan, 1960ko eta 1970eko hamarkadetako berpizkundetik hasi ("Nondik gatoz ta nora goazen") eta gaur egungo geldialdi-zantzuei aurre egiteko deia egiteraino ("ez dezagun ahaztu zein den gure bidaia"). Aldi berean, ohartarazten gaitu euskara gertuago dagoela heriotzatik normaltasunetik baino, eta, beraz, deia egiten du erakutsi behar ditugun "gogoia eta kuraia"ri heltzeko.

Aniztasuna eta dantzagarritasuna ardatz, soinu organiko sortutako saltsa oinarritzat hartuta eta herrialde ugarietako doinuez apainduta (alboka, trikia, tronpeta, tronboia eta perkusio latinoak nahastuz) josi dute kanta. Horrela, emaitza "goxo" eta "saltseroa" ekoiztu dute egileek.

Egileen artean, Igon Olaguenaga (ideia, letra, ahotsa, ekoizpena) eta Txiki Lora (ideia, gitarra, ahotsa, ekoizpena) dira buru, baina hainbat musikari ezagunen kolaborazioa jaso dute: Amaia Santamaria (ahotsa), Rodrigo Ulises (perkusioa), Yago Salorio (baxua), Marcos Ortega (tronpeta), Fernando Blanca (tronboia), Ibon Koteron (alboka), Joseba Tapia (trikitia) eta Iñaki Otxondorena "Moro" (letra eta ahotsa). Haiekin batera, Aresketa Ikastolako zenbait ikasleren ahotsak ere entzun daitezke abestian. Elkar estudioko Victor Sanchez izan da nahasketa eta master teknikaria.

Bideoklipa Eneko Martinezek egin du (Ikastolako ikasle ohia da). Grabazio horrekin, aitortza egin nahi izan zaio Aresketa Ikastolaren sorreratik lanean jardun duen komunitate osoari, euskararen aldeko taupadak etorkizunean ere bizik irauteko jaia ospatuz.



TAUPADAK BERPIZTU!

Basamortuko lorea hazi da
Sustraiak errotuta
Arabari begira

Nondik gatoz ta
nora goazen, alajaina!
ez dezagun ahaztu
zein den gure bidaia

Batu ditzagun denok
gogoia ta kuraia
mingainean daukagu
behar den sendagaia

Hemen daukagu berriz
berpizteko garaia
mezu zuzena dakar
aurtengo elaiak

Taupadak berpiztu ditzagun
euskarak behar gaitu gau eta egun
taupadak berpiztu ditzagun
gu gara jabe eta errudun
taupadak berpiztu ditzagun
euskaraz kanta ta dantza dezagun
taupadak berpiztu ditzagun
taupadak berpiztu ditzagun

Bazen behin
herri txiki baten algara
izenez Euskal Herria
hizkuntza euskara

Zabala dela esan nahi diot
Arabaraino hurbildu denari
erantzukizuna Amurriok
taupadak emateko festari

Geldituko gaituenika ez da
irakaskuntzan jarraitzen bada
euskaraz behar dugulako urrezta
eusko, eusko eskualdunak gara

Ez dugu inor utzi behar atzera
bakarrik ez gara, gara batera,
hurbildu zaitetz euskararen sura
Euskal Herritik munduraaaaa!

Araba aske eta euskaldun
ikastolaren oihua entzun
hemen gaituzu
maitale eta lagun.



FITXA TEKNIKOA

Abestia

Idea eta ekoizpena:

IGON OLAGUENAGA / TXIKI LORA

Letra: IGON OLAGUENAGA / IÑAKI OTXONDORENA "MORO"

Ahotsak:

AMAIA SANTAMARIA

IÑAKI OTXONDORENA "MORO"

ARESKETAKO IKASLEAK

IGON OLAGUENAGA

TXIKI LORA

Perkusioa: RODRIGO ULISES

Baxua: YAGO SALORIO

Tronpeta: MARCOS ORTEGA

Tronboia: FERNANDO BLANCA

Alboka: IBON KOTERON

Trikia: JOSEBA TAPIA

Sanplerra eta programazioak:

IGON OLAGUENAGA

Matilda estudioetako teknikaria:

RODRIGO ULISES

Elkar estudioetako teknikaria:

VICTOR SANCHEZ

Bideoklipa

Aktoreak:

MARIBEL AIZPURUA

ARESKETA IKASTOLAKO IKASLEAK eta GURASOAK

Bideogilea: ENEKO MARTINEZ

Kamera-laguntzailea: UNAI MARTINEZ



HERRI RRATS



MAIATZAK 10
SENPERE




kilometroak
Ibilian-ibilian, buelta!
Lazkao 2026

URRIAK 4
LAZKAO



MAIATZAK 31
BILBO



OINEZ
Bidean bat gara

Ereztzun Ikastola E San Fermin Ikastola

URRIAK 11
ZIZUR/GALAR

ERAKUNDEAK

araba álava
foru aldundia diputación foral



BABESLEAK



LAGUNTZAILEAK



KOMUNIKABIDEAK

araba euskaraz '26

Taupadak berpiztu!

Hasierako ekitaldia
10:00 Aresketa Ikastolan

Araba euskaraz azokak
Egun osoan Juan de Urrutia Plazan eta San Anton Plazan.

Arabako Herriarteko Euskal Pilotako txapelketaren finalak
10:30 Amurrioko Pilotalekuan

Kalejirak
10:00 Kun-Kun Batukada
11:00 Amurrioko Txistulariak
12:00 Elektropikala elektrotzaranga



ERRONKA

11:00-14:00

LH

1. gunean

DBH

Gune guztietan

1.

Bihotza
PARKEA

11:30 **ARABA EUSKARAZ DANTZA TOPAKETA!**
Aiara dantza taldea
12:30 **HERRI KIROLAK**
Vital Fundazioaren eskutik
13:00 **UGARTE OTXOTEA**
14:30 **BELGORRI**
16:00 **EH SUKARRA**
17:30 **AKERBELTZ**

TAILERRAK ETA JOLASAK:
11:00-13:00 **APDEMAREN TXOKOA**
11:00-14:00 **HAURREN BASOA**
11:00-14:00 **BERRIAREN TXOKOA**
Asier Kidam-en gertuko magia

EGUN OSOAN: EUSKALTELEN KUKAÑA BIZIKLETAZ



Aresketa
Ikastola

1.



2.

3.



Nerbio
ibaia

araba euskaraz '26

Taupadak berpiztu!



ASTEBURU PASA!

Ekainak 12

20:00 Kantuz taupadak berpiztu! Amurrio Antzokian. Musikaiera.

Ekainak 13

10:00 Amurrioko XCO Saria - Euskadiko txapelketa 2026. Reforren. Kuskumendi MBT.

11:00 Arabako Herriarteko Euskal Pilotako txapelketaren finalak. Amurrioko

17:00 pilotalekuan, Arabako Euskal Pilota Elkarte.


EGUN OSOAN: Gazte Eguna. Amurrioko Gazte Asanblada.

www.arabaeuskaraz.eus

ekainak 14 Amurrio



Jaiak aske bizi eta gozatu



2. Txinpanta REFOR

11:00 **PORROTXETA MARIMOTTS**
Arabako Ikastolekin Irri, Kantu eta Dantza
12:30 **NUN** Gazte Talent
14:00 **GANIBET**
15:30 **NAFARROA 1512**
17:00 **BAD SOUND**



TAILERRAK ETA JOLASAK:

11:00 - 14:00 **ARGITXOREN TXOKOA** Argitxorekin jolasean!
11:00 - 14:00 **KAIKU BASERRI TXOKOA**
Zatoz behia jeztera eta tailerrera!

EGUN OSOAN:
EROSKI ELIKADURA ESKOLA.



araba álava
foru aldundia diputación foral



3. Txinpanta REFOR

12:00 **ZUNBA** Izaskun del Cerro
13:30 **LOA ETA LAIA ZUZENEAN!**
15:00 **YOGURINA BOROVA** Amona Molona
17:00 **PATXI ETA KONPANIA** Araba Euskaraz Dantza Plazan

TAILERRAK ETA JOLASAK:

11:00 - 14:00 **KIRIKIÑO ASIALDI TALDEA**
Tailerrak eta jolasak
11:00 - 14:00 **AMURRIOKO XAKE TALDEA**
Xake partidak

EGUN OSOAN:
PUZGARRIAK, IHOBE KLIMA AZOKA ETA MAKUSI GUNEA.



Farmacia

Lcdo. B. Pérez Zubiaur



TAXI
Fran García

FRANCISCO F. GARCÍA MARTÍN

Tel. 663 500 952

Amurrio

GUK CAFÉ

PIKOTEO ASKOTARIKOA:
BAKAILAOA ETA OLAGARROA

Iturralde kalea, 7 - AMURRIO (ARABA)

Tel. 671 424 686

gukcafe@gmail.com

@ingoin

Arabatik parte-hartzea
eta gobernantza birsortzen

Logopedia
izar



LOGOPEDIA
Logopedía

PEDAGOGIA
Pedagogía

ESKOLA LAGUNTZA
Apoyo escolar

kantoi
Kafe & bar





Albizua Elektrizitatea, S.L

**INSTALAZIO ELEKTRIKOAK
ATEZAIN AUTOMATIKOAK
ARGITERIA PUBLIKOA
AHULKULARITZA ELEKTRIKOA
MATERIAL ELEKTRIKOAREN SALMENTA**

**INSTALACIONES ELÉCTRICAS
PORTEROS AUTOMÁTICOS
ALUMBRADO PÚBLICO
ASESORAMIENTO ELÉCTRICO
VENTA DE MATERIAL ELÉCTRICO**

608 87 05 13 945 89 07 02

ALDAITURRIAGA INDUSTRIALDEA, E 2 01470 AMURRIO (ARABA)

Mundutik ikastolara...



Farida Semrani (1983)

Farida Semraniren begiradak bi mundu lotzen ditu: bere sorterriaren oroimena eta Amurrion eraikitako bizitza berria. Bereber herrikoa jaiotzez, Faridak antzekotasun harrigarriak topatu ditu bere sustraien eta Euskal Herriaren artean. Integrazioaren, laguntasunaren eta mugak gainditzen dituen nortasun baten adibide ederra da haren ibilbidea.

SUSTRAIAK ETA KIDETASUNAK

Nongoa zara berez eta nolakoa da zure jatorrizko lurraldea? Tizi Ouzou herrikoa naiz, gaur egun Aljeriaren barnean dagoen Kabiliako eskualdekoa; bereber herrikoa naiz. Bitxia da, baina gure herria Euskal Herria bezalakoa da zentzu askotan: geure ohiturak eta geure hizkuntza propioa ditugu, eta gogor egiten dugu borroka horiek babesteko. Gainera, gure lurraldearen formak ere badu Euskal Herriaren antza.

Noiz eta zergatik erabaki zenuten hona etortzea?

Nire senarra 90eko hamarkadan etorri zen hona, Aljeriako gerra garaian, bizimodu hobe baten bila. Ni beranduago etorri nintzen, 2012an. Geroztik, gure familia hazi egin da: Dania (2013) eta Mahfoud (2014) gure seme-alabak hemen jaio ziren.

HIZKUNTZA, ORRATZAK ETA FAMILIA BERRIA

Gogorra izan al zen hasiera? Zerk harritu zintuen gehien? Hasieran Laudion bizi izan ginen zortzi hilabetez, eta 2013an Amurrion etorri ginen. Egia esan, betidanik eroso sentitu naiz hemen, inguruak nire lurraldea ekartzen baitit gogora. Hala ere, lehen hiru urteak zailak izan ziren hizkuntzaren muga dela eta; ez nekien ez gaztelaniaz, ez euskaraz.

"Ogia ematen dizun lurraldea zure herria da"

Nola lortu zenuen muga hori gainditzea?

Kultur etxeko joskintza taldean eman nuen izena gaztelania ikasteko asmoz. Eta hantxe ikasi nuen, bai! Baina hizkuntza baino askoz gehiago jaso nuen: lagun minak egin ditut, eta gaur egun nire familia bezalakoak diren pertsonak topatu ditut. Talde horretan, adibidez, bere lehen euskal jantzia josi nion nire alabari. Oso pertsona sozialea naiz, kalean egotea eta jendearekin hitz egitea maite dut, eta horrek asko lagundu dit hemen nire lekua egiten.

BI HERRIREN ARTEKO SENTIMENDUA

Zeren falta sentitzen duzu urruti zaudenean?

Gauza askorena... familia, lagunak, sustraiak. Horiek beti doaz zurekin eta beti sumatzen duzu haien falta. Migranteei gertatzen zaigun gauza bat da: jaioterrira bueltatzen garenean ere migrante sentitzen gara, hemen daukagunaren falta sentitzen baitugu han.

Eta gaur egun, nola sentitzen zara Amurrion eta Ikastolan?

Oso gustura. Gaur egun bertakoa sentitzen naiz, herriko beste bat gehiago, eta prest nago komunitate honi nire ekarpena egiteko. Atzera begiratzen dudanean, hunkitu egiten naiz eta harro sentitzen naiz egindako ibilbideagatik.

Ni munduko biztanlea sentitzen naiz; aniztasuna aberastasuna dela uste dut. Bizitzan beti saiatu naiz ibaiko ura bezala izaten: mugimenduan, beti garbi eta garden. Horrela bizi izateak lagundu dit bidea egiten. Eta zorte ona izan dudala uste dut!





Sadiqa Mohamed (1986)

Sadiqa Mohameden bizitzak muga asko zeharkatu ditu bakearen bila. Irakeko Kurdistandik ihesi, urtebeteko bidaia gogorra egin zuen bere alabekin Amurriora iritsi arte. Gaur egun, lasaitasuna du altxorrik handiena, eta bere seme-alabek bost hizkuntza hitz egin eta etorkizun oparoa izango dutela da bere harrotasun nagusia.

BELDURRETIK LASAITASUNERA: BIDAIA LUZE BAT

Nongoa zara berez eta nolakoa izan zen Amurriorainoko bidea? Duhok herrikoa naiz, Irakeko Kurdistandik etorritako kurdua. 2016an atera ginen gure herritik nire bi alabekin, Nazk (2011) eta Noor (2012), eta urtebete eman genuen bidean hona iritsi arte. Turkian hilabete eta erdi egin genuen lehenik, eta ondoren Greziara igaro ginen; beti errefuxiatu-zelaietan bizitzen. Azkenik, 2017ko abuztuaren 23an, Amurriora iritsi ginen. Ondo gogoratzen dut egun hori. Ondoren, Amurrion, Adam jaio zen (2021).

Zerk bultzatu zintuen jaioterritik ihes egitera? Gerratik atera ginen. Nire alabentzako etorkizun eta lasaitasun baten bila nengoan. Nik ezin izan nuen ikasi, gerrak aukera hori kendu zidalako, eta ez nuen nahi nire seme-alabak beldur horrekin bizi zitezen. Irteera oso isilpean prestatu genuen, familiak bakarrik zekien alde egingo genuela. Hango errealitatea oso gordina eta krudela da; gaur egun ere, nire familia gaizki pasatzen ari da, Iraneko gobernuak gure lurraldea bonbardatzen jarraitzen duelako. Egunero hitz egiten dut amarekin.

HERRI KURDUA ETA EUSKAL HERRIA: BORROKA KIDEAK

Antzekotasun asko ikusten dituzu herri kurduaren eta euskaldunaren artean, ezta? Bai, herri kurduak askatasuna bilatzen du, baina inguruko gobernuak ez digute uzten. Siria, Iran, Turkia eta Iraken zabaltzen da herri kurdua. Hizkuntza propioa dugu, kurdua, eta euskarak bezala, gureak ere dialektoak ditu. Gure hizkuntzari eusteko borroka eta askatasun nahia Euskal Herriarenaren antzekoa da oso. Nire seme-alabek ere badakite kurdua; amarekin hitz egiten dute ia egunero, ez ahazteko. Guztira bost hizkuntza jakingo dituzte: kurdua, euskara, gaztelania, ingelesa eta arabiera.

“Nire alabek euskaraz hitz egiten zuten etorri eta sei hilabetera”

Zer sentitu zenuen Amurriora iritsi zinen lehen egun haietan? Amets batean nengoela zirudien. Hemen dagoen lasaitasunak harritu ninduen gehien: gerrarik gabe, beldurrik gabe... Lasai lo egitea! Nire herrian ezinezkoa zen hori. Orain, goizean esnatu, seme-alabak ikastolara bidali, arratsaldean lagunekin geratu... Bizimodu lasai hori da beti bilatu izan dudana.

IKASTOLA ETA ETORKIZUNA

Nola egokitu zarete Amurriora eta ikastolako giroa? Oso gustura gaude. Nire seme-alabak oso zoriontsu bizi dira hemen; lagunak dituzte eta ikasten ari dira, hori baita etorkizun baterako garrantzitsuena. Alaben egokitzea harrigarria izan zen: iritsi eta sei hilabetera ezin hobeto hitz egiten zuten euskaraz.

Zerbaiten falta sumatzen duzu? Familia. Hori da faltan sentitzen dudana gauza bakarra, nire ama eta nire sustraiak han daudelako. Baina hemen aurkitu dugun segurtasunak ez du preziorik.



Aziz Ghachoi (1974)

Aziz Ghachoi k ondo gogoratzen du 2001eko maiatzaren 14a, bere bizitza betiko aldatu zen eguna. Marokoko Jerada herritik atera zenetik, bide luzea egin du Amurrioraino. Gaur egun lorezaina da eta, familiak inguratuta, bere esperientzia baliatzen du hona iristen diren gazte etorkinei laguntzeko.

BOST ORDUKO BIDAIA ETA BIZITZA BERRI BATEN HASIERA

Nolakoa izan zen zure etorrera? Oso ondo gogoratzen dut: 2001eko maiatzaren 14an izan zen. Gaueko hamabietan abiatu ginen Tangerretik, eta bost orduko bidaia egin genuen itsasoz Algecirasera iritsi arte. 56 pertsonako talde batean nengoen, nire herriko beste zazpi lagunekin batera. Oso bidaia gogorra izan zen; une oso latzak bizi izan nituen itsasoan.

Hasieratik etorri al zinen Euskal Herrira? Ez, lehenengo urteak Murtzian eman nituen, han familia nuelako. Hasieran ni bakarrik etorri nintzen, eta 2005ean ekarri nuen familia: Laila emaztea eta 3 seme-alabak: Imane (2009), Yakoub (2011) eta Salma (2014). Amurriora, berriz, 2015ean iritsi ginen. Bizimodu hobe baten bila atera nintzen Marokotik; nire herrian ez zegoen lanik, eta zegoen apurra oso gaizki ordaintzen zen.

PAISAIA ALDAKETA ETA OSASUNA

Zerk harritu zintuen gehien Amurriora iristean?

Natura eta paisaia izan ziren harrigarrienak niretzat. Murtzian nentorren, eta hango eta hemengo inguruak ez du zerikusirik. Baina paisaiatik haratago, guretzat garrantzitsuena osasuna izan zen: nire semeak asma arazo larriak zituen, eta hona etorri ginenean asko hobetu zuen. Gaur egun primeran dago.

"Itsasoa zeharkatzea gogorra da, baina gure seme-alabek bidea egiteko aukera dute hemen"

Jerada herriaren hutsunea sentitzen al duzu?

Urtero joaten naiz bisitan, baina bai sentitzen dut familiarren, lagunen eta auzokideen falta. Amurrio antzekoa da Jerada, herri txikia da; denok elkar ezagutzen dugu eta beti gaude elkarri laguntzeko prest.

IKASTOLA, LANA ETA ELKARTASUNA

Nola sentitzen zarete herrian eta Ikastolan?

Oso gustura nago Amurrioren, auzokideekin ere harreman ona dut. Gasteizen lorezaintza prestakuntza jaso nuen eta orain horretan nabil lanean; oso pozik nago. Seme-alabak ere oso gustura daude Ikastolan; aukera berriak dituzte hemen bide bat egiteko. Gainera, etxean hizkuntza ugari uztartzen ditugu: nire emaztea bereber herrikoa da, eta amazigera dakite denek.

Gaur egun, gazte askok jarraitzen dute zuek egindako bide bera egiten...

Bai, eta gogorra da ikustea oraindik jendeak asko sufritzen duela hona etortzeko, bizia arriskuan jartzen dutela itsasoan. Nik Urduñan Marokotik etorritako gazteekin hitz egiten dut; aholkuak ematen dizkiet, ikasteko eta bizimodu duin bat bilatzeko bidea erakusten saiatzen naiz.





Sonia Hilares (1978) eta Cesar Augusto Charagua (1977)

Andeetako mendien magalean jaioak, Sonia (Abancay) eta Cesar (Arequipa) hiri handietako zurrunbilotik ihesi iritsi ziren Amurriora. Madrilen egonaldi bat egin ondoren, hemen aurkitu zuten familia bat osatzeko behar zuten bakea. Gaur egun, sustrai perutarrak eta euskal ohiturak elkarrekin bizi dira haien etxean.

HIRI HANDIETATIK LASAITASUNERA

Nongoak zarete eta nola iritsi zineten

Amurrioraino? Sonia Abancay herrikoa da (Apurímac eskualdean), eta Cesar, berriz, Arequipakoa. 2003an eta 2007an irten ginen Perutik; lehenengo geltokia Madril izan zen, han familia geneukalako eta lan-aukerak zeudelako. Hala ere, 2007an, Amurriora etortzea erabaki genuen, eta hemen jaio ziren gure bi alabak: Irati (2012) eta Goretta (2010).

Aldaketa handia izan al zen Madril edo Lima

bezalako hiriak utzi eta hona etortzea? Sekulakoa! Lima edo Madril bezalako hiri erraldoietan bizitzen ohituta geunden, eta hona iristean paisaiak eta lasaitasunak harritu gintuzten gehien. Bizi-erritmoa askoz lasaiagoa da hemen, eta berehala konturatu ginen leku egokia zela gure familia osatzeko, segurtasunagatik eta bakeagatik. Hasieran kostatu egin zitzaigun pixka bat jendearekin sozializatzea, baina, poliki-poliki, integratzea lortu genuen.

KITXUA: INKEN HIZKUNTZA ETA TRANSMISIOA

Peru aipatzean, zaporeak eta usainak datozkigu burura. Zer botatzen duzue faltan? Familia, noski, baina baita bertako gastronomia, zaporeak eta usainak ere. Eta, nola ez, gure sustrai kulturalak: musika eta folklorea.

Perun, gaztelaniaz gain, kitxua ere bada hizkuntza ofiziala. Zer lotura duzue hizkuntza horrekin? Kitxua (Quichua) Inken hizkuntza da, Andeetako hizkuntza. Gurasoengandik eta aitona-amonengandik ikasi genuen guk. Hainbat dialekto daude Perun, eta Cuzco inguruan hitz egiten da gehien. Garrantzitsua da jakitea familia-giroan ikasten dela kitxua, ahozko transmisioaren bidez, eta ez eskoletan. Guk dena ulertzen dugu, nahiz eta idazten ez jakin.

“Euskararekin gertatu zen bezala, kitxuarekin ere transmisioa eteten ari da”

Alabek ikasi al dute arbasoen hizkuntza hori?

Egia esan, ez. Euskararekin gertatzen den bezala, transmisioa eten egin da gurean ere; Perun bertan ere gaztelaniaz hitz egiten da gehien gaur egun. Pena da, baina ahozko transmisio hori galtzen ari da belaunaldi berrietan.

INTEGRAZIORAKO KONPROMISOA

Gaur egun, nola ikusten duzue zeuen burua

herrian? Oso gustura gaude. Alabak oso pozik ikusten ditugu, bai Amurrioren, bai Ikastolan, eta hori da guretzat garrantzitsua. Hasieratik saiatu gara herriko bizitzan parte hartzen: alabek euskal dantzak ikasi dituzte, inauterietan parte hartzen dugu... Gure helburua beti izan da alabak hemen ondo integratuta egotea, eta ahalegin guztia egin dugu helburu hori lortzeko.

... Ikastolatik mundura



Amaia Zaballa

Aresketa ikastolatik Zurichera

Hamabi urte daramatzat Zurichen bizitzen, baina badira 23 urte Euskal Herritik kanpo bizi naizela. Ikastola gipuzkeraz hitz egiten ikasi nuen tokia da, eta benetan bitxia da hori, Amurrio askoz gertuago dago eta Bizkaitik!

Ikastolan bizitako momentu bereziena nire lehen manifestazioa izan zen: sei urte inguru nituen eta, adreilua eskuan, herriko plazaraino joan ginen, ikastola berrian 16 gela berri eraiki zitzatela aldarrikatuz.

Ez dut inoiz ahaztuko beheko ikastolako gela handia, eta *Aramsamsam* abestia entzuten dudan bakoitzean ikastola datorkit burura.

Berriro ikastolako ikasle banintz, euskal dantzetan emango nuke izena.



Lorea Gartzia

Aresketa ikastolatik Australiara

Hamabi urte daramatzat Australian bizitzen, eta sekulako aukera izaten ari da: ingelesa ikasteko, ohitura berriak ezagutzeko eta mundu guztiko pertsonekin topo egiteko.

Ikastola ez da ikastetxe soil bat, askoz gehiago da... ez ditut inoiz ahaztuko garai hartako lagun minak, ezta ikastolan izandako irakasleak ere. Gogoan dut bertan piztu zitzaidala naturarekiko kontzientzia, eta ondo gogoratzen ditut ospakizun asko ere: inauteriak, Korrika, Aresjaia...

Bertan hazi ginen, eskua elkarri emanda eta pausuz pausu!

LA TERRAZA

B A R

Amurrio



Diseinu Manu Campos

669 811 805

www.manucampos.com

Ingelesa zentzuz ikasi




**Matthew's School of
English**

Lucas Rey, 11 · Amurrio

- Ingelesez benetan aritzeko konfiantza
- Hurbileko arreta eta talde txikiak
- Aurrerapena, segurtasuna eta gozamena

669 227 039

BIT mekatxabir



MENDIZABAL TABERNA

El Rinconcito



ROMEKINA®



Ile-tonikoa, ilea sendotzeko, hazteko eta buruko ile-larrua zaintzeko.

Dermatitis, psoriasis eta ilea galtzea.

Tónico capilar para fortalecer tu cabello, estimular el crecimiento y cuidar el cuero cabelludo.

Dermatitis, psoriasis y pérdida de cabello.

www.romekina.com - TLF: 747456147





IKASTOLAKO PROIEKTUAK

Zirkulazio autonomoa osatzen duten espazio ezberdinetan, askotariko profesionalak hartzen dute parte. Horrela, ikasleek, erreferente ezberdinak izateaz gain, begirada ezberdinak jasotzen dituzte bueltan. Tribu osoak hezten du.

Jolasa da haurraren jardunik natural eta garrantzitsua; euren ikaskuntzaren oinarria da. Aresketan, hortaz, haurrak bere kabuz garatzen du autonomia, eta besteekin partekatuz, imitatuz eta elkarrengandik ikasiz egiten du aurrera.

Testuinguru horretan, haurrak bere interesen arabera ekingo dio jardunari, aktibo izango da, bere hazkuntza propioaren protagonista izango da. Haurrak berak aukeratuko du zer ikasteko prest dagoen; nor, bestela?

HH: ZIRKULAZIO AUTONOMOA, HAURRAREN DESIOTIK ABIATZEN DEN HEZKUNTZA

2016an, Haur Hezkuntzako marko propioa garatzen hasi ginen Aresketa Ikastolan. Iturri ezberdinetatik edan ostean, gure esperientziak esaten zigunari jarraituz eta Ikastolen Elkarteko aholkularitzaren laguntzaz, gure errealitateari hoberen egokitzen zaion marko pedagogiko propioa garatu genuen.

Printzipio horietan oinarrituta, gure solairuko paretak bota eta espazio handi batzuk sortu genituen 2018an.

Egunerokoan, bi une osagarri bereiz ditzakegu: kolektiboa eta zirkulazio autonomoa.

Kolektiboetan, taldea sortzen dugu eta taldekide sentitzen gara. Euskara, errutinak, edukiak, emozioak, material berriak eta, bereziki, haurren arteko harremanak lantzen ditugu orduan. Kolektiboa, gainera, zirkulazio autonomoan jarduteko atea ere bada.

Zirkulazio autonomoan, bi rol bereiz ditzakegu: heldua bidelaguna eta haurra protagonista.

Heldua ez da edukien transmisore hutsa, bidelaguna da haurraren hazkuntza-prozesuan.

Zirkulazio autonomoan, helduak testuingurua prestatu, egunerokoa behatu, arauak betetzen direla bermatu eta beharrezko egitura ematen dio haurren esperientziari. Heldua, beraz, beti dago haurren ikaskuntzari giltza ezberdinak eskaintzeko prest, eta, haurraren interes eta momentu ebolutiboarekin bat eginda, ikaskuntza esanguratsua izaten da.

LH: ARESKETA IKASTOLAKO IRRATIA: IKASLEEN AHOTSAK BIZI-BIZI

Aresketa Ikastolan ikasturtero garatzen dugun irratia-proiektua ekimen bizi eta eraldatzailea da, eta hezkuntza-komunitatea aberasten du. Ikasleen parte-hartzea eta protagonismoa ardatz hartuta, irratia aukera eskaintzen du modu dinamikoan lantzeko ikaskuntza, beste ikuspegi batetik biziz eguneroko eskolako jarduna.

Proiektu honen bidez, ikasleek modu praktikoan lantzen dituzte komunikazio-gaitasunak: gidoiak sortu, albisteak idatzi eta mikrofono aurrean hitz egiten ikasten dute. Prozesu osoan zehar, ahoko zein idatzizko adierazpena hobetzen dute, eta,aldi berean, konfiantza eta segurtasuna irabazten dituzte. Hasierako lotsak alde batera utzita, beren ahotsa sendotzen joaten dira pixkanaka.

Aresketa Ikastolako irratia, gainera, lankidetzara sustatzen du. Ikasleek taldea egiten dute lan, rol desberdinak hartuz -aurkezle, esatari eta kazetari-, eta erabakiak elkarrekin hartzen ikasten dute. Horrek gizarte-trebetasunak indartzen ditu eta errespetuan oinarritutako giroa sortzen laguntzen du.



IKASTOLAKO PROIEKTUAK



Bestalde, proiektuak lotura estua sortzen du ikastolaren eta inguruko komunitatearen artean. Ikasleek tokiko gaiak jorratzen dituzte eta, askotan, ahotsa ematen diete inguruko eragileei. Horrela, irriak kanpora irekitzen du ikastola, eta komunitate osoarentzat bihurtzen da interesgarri.

Irakasleen gidaritzapean, baina ikasleen ekimenari lekua eginez, Aresketa Ikastolako irriak erakusten du posible dela ikaskuntza esanguratsua eta motibatzailea sustatzea. Ez da soilik irratsaio bat sortzea; ikasleen ahotsa entzunaraztea da benetako helburua.

Azken batean, irri-proiektua tresna pedagogiko indartsua da, eta Aresketa Ikastolan egunero frogatzen da komunikazioak, sormenak eta lankidetzak hezkuntza aberastu dezaketela.

DBH: IKASBIDAIA

DBHko 4. mailan, ikasleek ikasbidaia egin ohi dute, gehienetan Aste Santuko oporren aurretik. Azken urteotan indar eta esangura handia hartu duen dinamika da, eta horixe izango da urteak joan, urteak etorri, bere horretan mantendu eta iraun izanaren arrazoirik nagusienetakoa. Tutoreak eta Orientazio departamentuko kideak joan ohi dira ikasleekin, eta urtez urte berresten dugu gure konpromisoa, erabat sinesten dugulako planteamenduan.

Gure ikastolan, curriculumaren barruan txertaturik ageri den ekintza dugu, **hezkuntzako zehar-lerro ugari** ukitzen baitira, bai hasierako lanketan, bai bidaiari egon bitartean, bai eta etxera itzuli ostean ere. Prozesu osoan zehar, ikasbidaia prestatzen, proposamenak luzatzen, aukerak adosten, erabakiak hartzen, kideak entzuten eta suertatzen diren zailtasunei aurre egiten ikasten dute ikasleek.

DBH etaparen agurra da, erritu moduko bat, eta berebiziko garrantzia izaten du ikasleentzat nahiz irakasleentzat. Elkarbizitzari dagokionez, ikasbidaia bueltan desberdintasunak ageri ohi dira, bai kideekiko, bai eurekin batera joan diren irakasleekiko, ikasleen arteko harremanak sendotzeko aukera paregabea baita. Bizitzarako oso irakaspen ona da eta, zalantza barik, ikasle guztiek gogoan izango duten oroitzapen ederra.

Azkenik, guztiz onuragarria da **euskara** ikastolako eremutik edo erregistrotik kanpo ateratzea, eta bidaiari hizkuntzaren erabilera ere izaten du eragina. Aldi berean, beste ikastetxe askorekin bat egiten dute, eta argi eta garbi dago esperientzia hori ere oso aberasgarria dela.



Aurten, **martxoaren 23tik 27ra** ibili dira Pirinio eta Mediterraneo aldean, kirola, natura eta kultura uztartuz. Azken eguna Port Aventura igaro ostean, Amurriora poz-pez bezain nekatuta itzuli ziren.

Egindako ekintzak, egunez egun:

- **1. eguna:** Candanchun eskiatu ondoren, arratsaldean Jacara joan ginen ostatu hartzera.
- **2. eguna:** Murillo de Gallegon raftinga eta arborismoa egin genituen.
- **3. eguna:** Saloun ur-ekintzez gozatu ostean, arratsaldean bisita gidatua izan genuen Tarracon.
- **4. eguna:** Bartzelonan izan ginen, Rambletan barna ibili ginen.

IKASTOLAKO PROIEKTUAK



ARESKASLE PROIEKTUA

- DBHko 3. mailako Gizarte arloaren barruan sortutako proiektu bat da ARESKASLE. Izena "Aresketa" eta "ikasle" hitzetatik dator: ARES(keta) + (i)KASLE.
- DBHko 3. mailako azken ebaluazioan, globalizazioaren eta elkarlanaren inguruan aritzen gara. Urteak daramatzagu beste herrialde batzuekin elkarlanean (Siria, Cabo Verde, Ukraina, Sahara), baita gobernuz kanpoko erakundeekin ere (Aita Menni, Gurutze Gorria, Alboan...).
- Azken urteetan, lan hori albo batera utzi gabe, ikusi genuen ikasleentzat garrantzitsua zela ikastolako barne-elkartasuna lantzea. Adin eta etapa desberdinetako ikasleek osatzen dute ikastola, eta guztiok komunitate bera osatzen dugu; hala ere, askotan, egunerokotasunaren poderioz, ikastolako gainerako hezkuntza-etapak ahazten ditugu. Hortxe ipini nahi genuen gure indarra.
- DBHko 3. mailako ikasleek Elkartasun Astea bizitzen dute maiatz inguruan. Une horretan, ikasleak ikastolan zehar sakabanatzen dira: 2 urteko umeen gelatik hasi eta LHko 6. mailara arte, irakasleen laguntzaile bihurtzen dira, jolas-orduetan jolastuz, gelan lagunduz eta irteeretan parte hartuz.

- Gainera, gure herriarekin lotura estutzeko eta beste errealitate batzuk ezagutzeko, Amurrioko Armuruko San Anton Zaharren Egoitzan ere egoten dira ikasleak. Aste osoan zehar, ekintza desberdinak lantzen dituzte: egunkariak irakurri, musikoterapia-saioak egin, gimnasia, jolasak... Aurten, bereziki, dilema etikoak landu dituzte (ongizatea, bizitza, autonomia...) egoitzako langile eta egoiliarrekin batera.
- Beste talde batzuek gobernuz kanpoko erakundeen proiektuetan parte hartzen dute, mugikorrek, eskola-materiala, janaria, zapatak eta bestelako materiala bilduz.
- Aurten, Araba Euskaraz dela eta, hirugarren talde bat gure logotipoaren kopiak egiten aritu da, bihotzak sortzen eta margotzen, ikastola ederki apaintzeko.
- Proiektu honen balorazioa oso positiboa izaten da beti. Ikasleek kompetenziak lantzen dituzte, baina modu praktikoan eta gelatik kanpo. Horrek beste dinamika bat sortzen du. Ilusioz aritzen dira ikasleak, eta normalean oso aberasgarria izaten da jasotzen duten hori, ez bakarrik haientzat, baita komunitate osoarentzat ere.



TABERNA ANTOJO JATETXEA



Sagasti, 3 - Arespalditza

Tel. 945 39 99 00

e-mail: taberna@restauranteantojo.com



TABERNA FRONTON



TABERNA RIBERA

Larrinaga 4 behea (AMURRIO)

PINTXOPOTE - RABAK



Taupadak berpiztu!



Bihotza, gertukoa. Beti euskaraz!

TORNILLERIA LANDALUCE S.A.

Santa María, 7 - Telf. 94 661 00 54 - 630 08 82 23 - 48410 - Orozko



ZUMBIKE_LAUDIO

JOSE MATIA 36 HOTEL VALLE DE AYALA

602 481 258

ERRITMOA & OSASUNA

ZUMBIKE

RITMO & SALUD

ZUMBA
SPINNING
ARIKETA FUNTZIONALAK

ZUMBA
SPINNING
EJERCICIOS FUNCIONALES

ZAINDU ZURE GORPUTZA,
BIZITZEKO DUZUN LEKU
BAKARRA DA ETA.

CUIDA DE TU CUERPO,
ES EL ÚNICO LUGAR
QUE TIENES PARA VIVIR.



TROJ
 HAND-CRAFTED
 EUSKAL HERRIAN ASMATURIK
 GARAGARDO
 GABE

EUSKAL HERRIAN ASMATURIK

Garate

Txakoli

BASQUE WINE

txakolin
 ibilbidea

Goienuri, 20 - 01400 Laudio (Araba)
 Basque Country / +34 659 06 03 91 / info@txakoligarate.com

CARPINTERIA ZABALIBAR

aroztegia

LEIHOAK, ATEAK ETA ZORUAK
 ARMAIRUAK, SUKALDEAK ETA NEURRIRA EGINDAKO ALTZARIAK
 BARNE ETA KANPO ZURGINTZA
 SARRERA ATEAK ETA ERA GUZTIETAKO ZUREZKO LANAK
 VENTANAS, PUERTAS Y SUELOS
 ARMARIOS, COCINAS Y MUEBLES A MEDIDA
 CARPINTERÍA INTERIOR Y EXTERIOR
 PUERTAS DE ENTRADA Y TODO TIPO DE TRABAJOS EN MADERA

C/ Zabalibar 9, AMURRIO · 675 933 761 · carpinteriazabalibar@gmail.com / www.zabalibar.com

Zurezko plaza jokuak

Kalaka

TAILERRAK, AISIA ETA ANIMAZIOA

FELIX PIKATZA
 Industrialdea, Edif. Cerámica.
 01400 - Laudio/Llodio
 kalakajokuak@gmail.com
 635 70 29 76
 https://kalakajokuak.eus

EL TALLER DE ALEX

MANTENIMENDUA ETA KONPONKETAK



Kotxeak



Motorrak



Banatzaile ofiziala



POL. MASKURIBAI, B06. AMURRIO

945 89 10 17 / 610 42 78 05

alex@eltallerdealex.com

ALUVENT

ALUMINIOZKO eta PVCzko

leihoak

678 250 290

Murga industrialdea, 15. MURGA

www.aluvent.eus

*Jarrai
gaitzazu hemen:*



EUSKARAREN ALDEKO AUZOLANKIDEAK



æk

AMURRIOKO AEK

La bost hamarkada pasatu dira Amurrioko euskara-eskolak sortu zirenetik; 70eko hamarkadan hasi ziren gau-eskolak, euskaltegiaren hastapenak. Ondoren, Amurrioko AEK euskaltegiak bere ibilbideari ekin zion; gaurdaino etenik izan ez duen haria. Hasierako urte haietan ezarri ziren gaur egungo oinarriak: euskara dohainik ikasteko eskubidea unibertsala izatea eta euskararen ezagutza zein erabilera sustatzea, hain zuzen.

Atzera begira, une hunkigarri bezain ederrak igaro izan ditugu, hala nola 22. Korrika Amurrión hasi zenekoa, edo AEKtik pasatutako ikasleak euskaraz mintzatzen entzuten ditugunekoak. Baina garai latz eta ilunak ere bizi izan ditugu, esate baterako, Garzonek ezarritako itolarri ekonomikoa, edo haizeteak lehengo euskaltegiko teilatua eraman zuenekoak.

Aurrera begira, etorkizunak zer ekarriko digun ez dakigun arren, datorrenari aurre egingo diogu, orain arte egin dugun bezala, Euskal Herrian euskaraz eroso bizitzea posible izan arte.

Amurrión ez ezik, Artziniegan, Aiaran eta Urduñan ere aritzen gara euskara sustatzen, hainbat arlotan lan eginez.

Alde batetik, Ahize zerbitzuaren bitartez, euskararen erabilera sustatzeko jarduerak eta hizkuntza aholkularitza ematen diegu udal, enpresa eta merkatariari.

Beste alde batetik, Praktikatuekin, mintzatzeko aukera eskaintzen zaio nahi duen orori. Horrela, mintza-taldeak eta familiei bideratutako ekintzak antolatzen dira Artziniegan, Urduñan eta Aiaran.

Eta, azkenik, gure xedea lortu nahi dugu: eskualdea euskalduntzea. Hori dela eta, gure hizkuntza zein kultura ezagutu nahi dituzuen guztiok izango zarete ongi etorriak gurean. Guztiok baikara beharrezkoak gure hizkuntza galdu ez dadin. Beraz, inoiz baino ozenago aldarrikatuko dugu euskara ikastearen doakotasuna.

24. Korrikako kantak dioen bezala "lauburu bat gâteau batean baino, euskara gara"... ETA IZANGO GARA!

EUSKARAREN ALDEKO AUZOLANKIDEAK

AIARALDEA EKINTZEN
FAKTORIA

Faktoriak; lehen zortzi urteetan, gure eskualde erdaldunduan euskarazko komunikabide bat sortzeko lanean buru-belarri aritu zen proiektua, gazte jende asko saretu eta ordura arte pentsaezina zen egitasmoa auzolanean eraikiz. Gaur da eguna Aiaraldea.eus webguneak aterpetzen duen komunikazio proiektua dudaezinezko erreferentzia dela gure lurraldean, euskarazkoa dela irismen handiena duen tokiko komunikabidea, hala euskaldunentzat nola erdaldunentzat.

2016. urtean, baina, gazte sare ahaldundu hark etorkizunari begiratzeko hautua egin zuen eta, gure lurraldearen errealitateak erdaraz birsortzen jarraitzen zuenaz ohartuta, jauzi handiago bat ematea erabaki zuen: euskaradunok eskualdean



gure hizkuntzan bizitzeko ahal beste tresna sortzeko langintzari ekitea. Esan eta egin. Elkarte txiki hura irabazi asmorik gabeko gizarte ekimeneko kooperatiba bihurtu zen, bere lan arloak biderkatu eta orain Faktoria bezala ezagutzen dugun 750 metro karratuko erabilera anitzeko espazioa ireki zuen Laudion, euskararen arnagune komunitarioa.

Ordutik hona, ehunka izan dira Aiaraldea Ekintzen Faktoriak lurraldean eta espazioan bertan garatu dituen egitasmoak eta proiektuak, 6 lan esparrutan berezita: Komunikazioa, Hezkuntza, Elikadura burujabetza, Feminismoa, Kultura eta Ekonomia sozial eraldatzailea. Erronka argia da: balio eraldatzaileetan oinarrituta, euskaraz bizitzeko alternatiba sendoak eraikitzea euskaradunentzat.

Euskararen aterpe eder honen bazkide komunitatea 1700 lagunek osatzen dute egun, 24 langileko lan-egitura eta, orain arte bezala, auzolanean eta elkarlanean euskararentzako ekosistema oso bat eraikitzeke grina eta pasioa borborka. Euskaldunok ondo ikasi baitugu euskararen herria, antolatuko bada, auzolanean eraikiko dela.



ZER GARA EUSKARA GABE?

2016an, euskararen normalizazioa eta biziberritzea xede, askotariko 44 entitate batu eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua sortu genuen. Eskualdeko ikastetxe guztiak, gazte elkarteak, kirol arlokoak, gehiengo sindikala, kultur mundukoak... Euskara bultzatzeko elkarlana tresna eta arlo guztietan eragiten saiatzea irizpide, hamaika ekimen garatu ditugu azken 10 urteotan.

Ekimen horien artean daude, besteak beste, *Gurasoleku*, topaketak gazteekin, *Kirolariak ikastetxeetan* eta *Memealdia*; hizkuntza eskubideak bultzatzeko, *Errotuladore Gorria* eta *Udal Protokoloa*; euskarazko programazioa bultzatzeko, *Euskararen Semaforoa*; hizkuntza politikan eragiteko, *Bai We Can* eta *Hautagai Euskaldunak*; *Gora Aiaraldeko Jai Euskaldunak!*, azken lau urteotako jaien azterketa txostenak, *Praktika onen gida* eta ostalaritzarako



proposamen bat, eskualdeko jaietan euskarak espazioa irabaz dezan; eskualdeko euskaldunak aktibatzeke eta elkar ezagutzeko *Aiaraldeko Euskararen Eguna*; beste kultura eta hizkuntzetako jendartea euskarara erakartzeko, poltsikoko hiztegiak eta *Hizkuntzen Mapa*; *Aiaraldean Futbola Euskaraz* kanpaina eta manifestua; hezkuntzan ditugun erronka handiei erantzuteke guratik, *Euskara gabe ez gara* manifestua. Eta bidean diren beste hainbat ekimen.

Lana, lana eta lana. Euskaldunok bidegurutze batean gara, berpiztu ala hil. Egunero zenbat hizkuntza desagartzen dira munduan? Gureari eutsi eta aurrera egin nahi dugu. Pausoak alor guztietan eman daitezke eta eman behar dira, aurrera ez doana atzera baitoa. Horregatik, elkarlana eta aurrerapausoak ekar ditzaketek ekimenak sortzen tematzen gara. Ilusioz eta gogo betez, asko baitugu irabazteke. Hurbildu, eta ezagutu gaitzazu.

Berpiztu taupadak, euskaltzaleok!



IRUÑEKO EUSKALTZALEON MARTXATIK AMURRIOKO ARABA EUSKARAZERA

Euskaldunok badugu zertaz harro egon: hamarkada gutxitan, hizkuntza bat berpiztu eta milaka hiztunetara ekarri dugu, ikastolak sortu ditugu, euskaltegiak herriz herri zabaldu ditugu eta belaunaldi oso bat euskaraz hazi dugu.

Euskara hizkuntza minorizatua da eta biziberritze-prozesu luzea du aurretik. Urte askotako taupada luze eta erritmo bizikoak behar ditu. Azken diagnostiko eta azterketek adierazi digute ezagutza eta erabilera ez doazela erritmo berean, bidegurutzean dagoela hizkuntza, eta jauzi bat behar dela hizkuntza-politikan, aurrera egingo bada.

Ekainaren 13an, Iruñean, Euskaltzaleon Martxa


antolatu du **Euskalgintzaren Kontseiluak**. Hiru zutabe eta hiru aldarrikapen nagusi izango ditu. Lehen: aldarrikatuko du euskara Euskal Herri osoan ofiziala izatea, herritarrek edozein tokitan euskaraz bizitzeko eskubidea izan dezatela. Bigarrena: erakundeak, alderdi politikoak eta eragile sozialak interpelatuko ditu jauzi erreala eman dezaten hizkuntza-politikan. Hirugarrena ikastolen komunitatearentzat berezia: erdigunean jarriko ditu euskaltzaleok gure egunerokoan egiten dugun ekarpenaren aitortza eta euskaltzale gisa antolatzeak duen garrantzia.

Ikastolen Elkarteko lehendakari naizen aldetik, Iruñera joateko deia egiten dizuet. Erakutsi dezagun bizirik daudela euskararen aldeko taupadak. Pizkundea herritarrok egingo dugu posible, eta Iruñeko kaleak betetzeak euskararen taupadak bizituko ditu. Eta ekainaren 14an Amurrionara etorriko gara, Arabako Ikastolen aldeko jaira, eta abiadura handiagoa hartuko dute taupada horiek.

Nekane Artola

EHIko lehendakaria

EUSKARAZ BIZITZEKO
**PIZKUN
DEA**
ekainak **13** Iruñea





Insteeelek

CLIMATIZACIÓN
MONTAJES ELÉCTRICOS

KLIMATIZAZIOA
MUNTAIA ELEKTRIKOAK

José Pintor Arrue, 11, behea/bajo
01400 Laudio-Llodio
Araba - Álava

Tlf: 687714575

Fax: 9456566993



**ELECTRICIDAD
AMURRIO**

Instalazio elektrikoak
Bideo-atezainak

★

Instalaciones eléctricas
Video-porteros

Juan Núñez 648 088 867
electricidadamurriojnr@hotmail.com
Zabaleko, 12 lonja AMURRIO

 **elkarlan**

Asesoría fiscal, contable y laboral | Fiskal, kontable eta laboral Aholkularitza
Correduría de seguros • Aseguru artekaritza

Amurrio 945 39 33 51 • Llodio 946 72 74 28 • Ugao-Miraballes 946 03 91 65
elkarlanasesoria.com

Eska



**araba
euskaraz '26**


Jaupadak berpiztu!



HYUNDAI

94 672 81 01-LAUDIO

Nerbioi Garaian Zerbitzu Ofiziala



GOROBEL



MATERIAL BATZORDEA

AUZOLAN ERRALDOI BATEN ADIBIDEA

Araba Euskaraz ez da egun bakarreko festa; urte osoko lana da, milaka ordu isilen eta borondatezko esfortzuaren emaitza. Proiektuaren motorretako bat Material Batzordea da. Loli bezalako pertsonen eskarmentuari esker, aurrera egiteko beharrezkoa den finantzaketa eta ikusgarritasuna lortzen ditu ikastolen jaiak. Haren testigantzaren bidez, dendaren atzean dagoen lan "ikusezin" hori ezagutu dugu.

MOTORRAK BEROTZEN UDA BAINO LEHEN

Zerk ematen dio hasiera batzorde honen martxari?

Material Batzordea da martxan jartzen den lehena. Aurreko edizioa amaitu orduko, hurrengoaren diseinuak prestatzen hasten gara. Lehenengo kamiseta uda baino lehen ateratzen dugu, askotan logoa eta leloa oraindik guztiz itxi gabe daudela. Gure helburua da uztail eta abuzturako hastea zabalkundea ematen ekimenari; eta uda garaia oso aproposa da kalean egoteko eta materialari ikusgarritasuna emateko: jendeak kamiseta janzten du, eta, horrela, jaialdiaren mezua barreiatzen da.

Hogei bat lagun zabiltzate lanean, ezta? Bai, talde polita osatzen dugu. Bi arduradun nagusi gaude, eta beste hainbat lagun dendako txandak egiteko. Gure lehen egitekoa lokala lortzea izaten da; aurtun zorte handia izan dugu, irailetik baitugu materiala biltzeko eta saltzeko gune bat. Lan handia dago hemen: hornitzaileekin hitz egin, material motak eta kalitateak aztertu, neurriak eta kantitateak erabaki... Eta, materiala jasotakoan, dena sailkatu eta antolatu behar da. Etengabeko lana da, dendaren atzean dagoen ordu askoko dedikazioa, baina gustura egiten dugu, proiektuan sinesten dugulako.

GABONAK: SALMENTARIK HANDIENENKO GARAI

Noiz izaten da lan-kargarik handiena? Batzordeko kideei esker, urte osoan zehar mantentzen dugu irekita denda, baina bi garai izaten dira bizienak: Gabonak eta Aste Santuko oporren ostea. Garai horietan saltzen da gehien eta, jendea ere, orduan inplikatzeko da gehien ahal duen moduan. Garai garrantzitsu horietan, egunero irekitzen dugu denda, laguntzaileek egiten dituzten txandei esker.

Ni jubilatuta nagoenez, denbora gehiago dut, eta dedikazio handiagoa eskaintzen diot proiektuari, baina auzolana da gakoa; talde-lanik gabe ezingo genuke denda irekita mantendu.

Amurriotik kanpo ere ibiltzen zarete, ezta? Halaxe da. Dendako txandak egiteaz gain, Arabako beste herri batzuetara joaten gara postua jartzera. Irteera horiek logistika handia eskatzen dute: bezperan dena kutxetan prestatu, etiketatu eta antolatu behar dugu. Laguntzera datozen lagunek askotan ez dute materiala ezagutzen, eta guk lana erraztu behar diegu dena txukun utziz. Eta, bueltan, berriro dena dendan ordenatu behar da, berriro ere salgai jartzeko.

ESPERIENTZIA ETA BILAKAERA: 1996TIK GAUR EGUNERA

Loli, aurtengoa ez da zure lehen Araba Euskaraz...

Ez, aurtengoarekin bost edizio daramatzat jada. 1996koan hartu nuen parte aktiboki lehenengoz, eta geroztik denetan hartu dut parte, beti Material Batzordean. Izugarri gustatzen zait hemen lan egitea.

Nola aldatu da materialaren salmenta urte hauetan guztietan? Askok aldatu da.

1986ko Araba Euskaraz jairako, esaterako, oso material gutxi ateraz zen.

Ondoren, 1996an, adibidez, sekulako salmenta lortu genuen. Garai hartan Euskal Herriko herrialde guztietara joateko aukera genuenez, etengabe mugitzen ginen gure postutxoarekin, ezagutzen ez genituen herrietaraino, eta material asko saltzea lortu genuen.

Gaur egun, aldiz, zailagoa da, kalean elkarte asko dabilta kamisetak edo bestelako materiala saltzen. Horregatik, material mota dibertsifikatzea da gakoa: kamisetez gain, USBak, ardo-botilentzako hozkailu eramangarriak, euritakoak edota nezeserrak eskaini behar ditugu. Azken finean, helburua materiala saltzea da, dirua lortu ahal izan dezagun proiekturako.

Hainbeste urtean, bada zuretzat berezia den kamisetaren bat edo gordeta duzun altxorren bat?

Bai, dudarik gabe: José Luis Zumetak egindako logoa daraman kamiseta. Altxor bat balitz bezala daukat gordeta etxean.

Behin eta berriro aipatzen duzu "auzolana" hitza. Nola ikusten duzu gaur egun talde-lanerako konpromiso hori? Urte osoko auzolana da hau, eta ezinbestekoa dugu. Hala ere, nabari da gizartea aldatu egin dela; orokorrean inplikazioa badagoen arren, iruditzen zait lehen baino gutxiago inplikatzen dela jendea. Indibidualistago bihurtu gara. Ikastola proiektu nazionala da, besteak beste Iparraldearekin eta Nafarroarekin lotzen gaituena, eta horrek konpromiso sendoa eskatzen du. Euskal Herriko beste jaietara joaten garenean ere argi ikusten dugu: auzolanik gabe jai hauek guztiek ez lukete aurrera egingo.

Hasierako talde-izaera hori lausotzen ari dela sentitzen duzu? Neurri batean, bai; ikastolok ere

indibidualistago bihurtu gara eta Euskal Herri osoko begirada horren zati bat galdu dugu. Gainera, gaur egun jendeak uste du lortu ziren gauzetako asko hor daudela besterik gabe, ez dela haien alde lan egin behar. Ondorioz, askok ez dute egunerokoan inplikatua nahi, nahiz eta agian egun bakar batean laguntzeko prest egon. Baina proiektu bati eutsi ahal izateko, eguneroko esfortzua behar da.

Loli, zure hitzak entzunda, argi dago auzolana zuretzat ez dela lan-saio soil bat. Zer da, zehazki, zuretzat, eta zer ematen dizu pertsonalki? Nik

auzolanean sinesten dut, guztiz; bitzita ematen dit. Egia da esfortzu bat eskatzen duela, eta argi izan behar dugu lanik gabe proiektuek ez dutela aurrera egiten. Baina trukean jasotzen duguna ematen duguna baino askoz handiagoa da: proiektua nola elikatzen den eta nola hazten den ikustea, horixe da saririk onena.

Ez dut ulertzen bitzita auzolanik gabe. Ikastolan gertatzen den bezala, Ohiturak elkartean ere filosofia bera dugu. Herrian mugitu egin behar gara; ezin dugu dena Udalaren esku utzi, eta ezin diogu enpresa bati eman ekimenak antolatzeke ardura. Guk geuk eraiki behar dugu geure herria.

Kezkatzen zaitu etorkizunak? Gaur egun errelebo falta da nire kezka bakarra. Lehen esan bezala, lanik eta esfortzurik gabe ez dago aurrera egiterik, eta transmisio hori eteten bada, jai dugu. Hala ere, guk lanean jarraituko dugu, proiektu honek hazten jarrai dezan eta auzolanaren sugarra itzal ez dadin.

TONBOLA

Tonbola arrakasta handiko ekintza izan ohi da Araba Euskaraz guztietan, eta aurtengoa ere horrelakoa izango da, ahalegin betean lanean ari den taldeari esker. Itxaso Urreta talde horretako kide da, eta harekin mintzatu gara tonbolaren gorabehera guztiak ezagutzeko asmoz.



Noiz hasi zarete lanean? Zertan datza zuen lana?

Ikasturtearen hasierarekin batera hasi ginen lanean, ekainaren 14a baino lehen asko dago egiteko eta! Irailean talde eragilea osatu eta lehen bilerak egin genituen, eta urrian lehen faseari ekin genion.

Lehen fasean elkartu eta herriko denda, taberna eta enpresa txikien zerrenda egin genuen; guztiak taldeko kideen artean banatu eta komertzio horietara guztietara hurbildu ginen tonbolan parte hartzeko gonbidapena luzatzeko.

Aldi berean, Euskal Herri mailan entzutea duten enpresa edota elkarten zerrenda ere egin genuen, eta mezu elektronikoa bana bidali genien.

AUZOLANAREN INDARRA

Fase hori luze samarra izan da: batzuetan, lehen bisitan ez dugulako erantzunik jaso eta, hortaz, behin baino gehiagotan joan behar izan dugulako komertziora, eta, beste batzuetan, oparien bila guk geuk joan behar izan dugulako; adibidez Athleticek eta Realak kamiseta bana eman digute, baina geuk joan behar izan dugu haien bila.

Laburbilduz, lehen fase horretan, matraka ematea izan da gure zeregina.

Eta, lehen fase horren ostean, zer dator? Bigarren fasea orain hasiko da. Zuzenean jaso behar ez ditugun opariak ikastolara iristen hasi dira, eta ondo kudeatu behar da guztia, zenbaketa egin eta opari motak bereizi behar direlako.

Bigarren faseko lana potoloagoa da. Lana egunean eraman nahi dugu, hau da, produktuak iritsi ahala sailkapena egin, baina hainbat opari azken egunetan iritsiko dira.

Zer motatako ekarpenak egiten dituzte? Askotariko opariak jasotzen ari gara. Hasieran futbol taldeen kamisetak aipatu ditut, eta esan beharra dago herriko kirolariek ere eman dituztela haien kamisetak -Mikel Landak eta Iker Larrazabalek-. Musika taldeek eta pailazoez ere haien produktuak bidali dizkigute; arrakasta handia izaten dute azken horiek.

Upeltegiek eta aisialdi parkeek, adibidez, esperientziak oparitzen dituzte, eta inguruko azoketan egoten diren artisauek ere haien alea ipini dute.

Janari loteak ere jasoko ditugu, eta horiek dira azken egunetan antolatu beharko ditugunak.

Aipatzekoa da, halaber, ikastolaren komunitatea osatzen dugunon artean ere badirela ekarpenen bat egingo dutenak, hau da, haiek sortutako zerbait oparituko dutenak.

Sorpresa politak egongo direlakoan gaudel!

Auzolanak prozesu hori guztia errazten al du? Noski auzolanak prozesua errazten duela! Bakoitzak ahal duen heinean laguntzen du, eta guztion lana elkartuta asko da lortzen dena.

Gainera, ikastolan badugu taldetxo bat guri laguntzen. Hainbat opari atontzeaz arduratzen dira eta, horrela, lagundu ez ezik, ikasi ere egiten dute.



LAN PARTEKATUAREN BALIOA: EKINEZ IKASI

Hezkuntza-premia bereziak dituen ikasle talde bat ikaskuntza-esperientzia erraz eta aberasgarri baten protagonista izan da berriki: tonbolarako opariak atontzeaz arduratu da.

Ikasleak buru-belarri aritu dira 456 kamiseta sailkatzen -koloreka-, garbitzen eta ordenatzen. Zeregin horietako bakoitzak berekin ekarri du eguneroko bizitzarako funtsezkoak diren trebetasun praktikoak eskuratzea: esaterako, garbigailu bat behar bezala erabiltzen ikasi dute -programak hautatu, detergentea neurtu eta garbitzeko denborak kontrolatu-, bai eta arropa modu egokian esekitzen eta tolesten ere.

Baina ikaskuntza haratago joan da. Prozesu hori aukera bikaina izan da konpetentzia matematikoa testuinguru esanguratsu baten baitan garatzeko.

Ikasleek kamisetak zenbatu dituzte, neurrien edo koloreen arabera multzokatuta, eta batuketa, sailkapena eta antolaketa bezalako kontzeptuak landu dituzte. Halaber, denboraren kudeaketa funtsezkoa izan da: garbiketa-ziklo batek zenbat irauten duen, arropa jasotzeko unea noiz den edo zeregin bakoitza betetzeko zenbat denbora behar den ulertu dute.

Auzolanaren balioak ere sustatu dira prozesuan zehar, ikasle talde honek ere bere aletxoak ipini baitu komunitate osoa gogoz prestatzen ari den Araba Euskaraz jairako.



CERÁMICAS - Zeramikak

MATERIALES DE CONSTRUCCIÓN
Eraikuntzarako materialak

MAMPARAS E HIDROMENSAJE
Manparak eta hidromasajeak

GRIFERÍA Y SANITARIOS
Txorrotak eta sanitarioak

MOBILIARIO DE BAÑO
Bainu-altzariak

CHIMENEAS -Tximiniak

FERRETERÍA - Burdindegia

MOBILIARIO JARDINERÍA - Lorezaintzako altzariak

SUMINISTROS PARA LA CONSTRUCCIÓN Eraikuntzarako hornidura

Almacén y exposición

Biltegia eta erakusketa



plaza amurrio, s.a.

Pol. Ind. Zankueta Ctra. Vitoria. km.0,1

01468 Larrimbe AMURRIO (Araba-Álava)

945 89 02 93 - 945 89 15 45 Fax: 945 89 00 00

plazaamurrio@plazaamurrio.com

www.plazaamurrio.com



autocares **Sobrón**



INSTALACIONES

RAGA IBARRONDO

ITURGINTZA BEROGAILUA GASA AIRE GIROTUA
Fontanería Calefacción Gas Aire acondicionado

Denda 945 30 37 35

Jesus 636 42 80 15

Juanmi 620 63 81 38

Susana 636 77 74 55



Jose Madinabeitia, 1
Amurrio (Araba)



ragaibarrondo@gmail.com



www.ragaibarrondo.com

TAPER

taperarkitektura.com



IZAGA

ENERGIA BULTZADA,
EUSKARA PIZTU.

araba
euskaraz '26

Taupadak berpiztu!



VENDING
SOLUZIOAK:

- ☕ Kafe-Guneak
- 🍴 Janari-Zerbitzua
- 💖 Osasungarriak

ARABA OSOAN

www.izaga.com 945 28 20 72

Izan AMURRIO

Ostegunetan eta ostiraletan pintxo-pote
Txibierroak igandeetan
Pintxoak eta tortillak enkarguz



Tel. 945 065 715 - Mendiko 2, Amurrio

Jueves y viernes pintxo-pote
Rabas los domingos
Pintxos y tortillas por encargo



LEZIAGA CONSTRUCCIONES

"Etorkizuna eraikitzen jarraitzen dugu, gure
bezeroak, gure baliorik handiena"

"Seguimos construyendo futuro, nuestros clientes,
nuestro mayor activo"



leziaga@leziaga.es



94 672 48 25



www.leziaga.es

Natura eta tradizioa, eskura

Datorren **ekainaren 14an** hitzordu garrantzitsu bat dugu Amurrian: Araba Euskaraz 2026. Baina, jaiaz gozatzeaz gain, gure eskualdeko altxorrek deskubritzeko aukera paregabea ere baduzue. Amurrio Aiaraldeko bihotzean kokatzen da, natur ingurune paregabe batean.

GOROBEL: ESQUALDEKO BEHATOKI PRIBILEGIATUA

Eskualdea ezagutzeko modurik onena naturan murgiltzea da. Horretarako, Gorobel mendilerrotik txangoa egitea proposatzen dizuegu, eskualdeak duen begiratokirik ederrena baita. Bertako labar ikusgarriek eta paisaia berdeek aho zabalik utziko zaituzte.

Mendizale amorratua izan ala ez, ibilaldi hauek dira Aiaraldeko esentzia arnasteko modurik onena.

GUZTIENTZAKO TXOKOAK

Mendia ez bada zuen lehen aukera, lasai! Denetarik proposamenak ditu Aiaraldeak:

- **Historia eta ondarea:** Erdi Aroko hiriguneak eta dorretxeak.
- **Turismo enologikoa:** Txakolinaren lurraldea gara; bisitatu upategiak eta dastatu gure produkturik preziatuena.
- **Gastronomia:** Bertako produktuetan oinarritutako sukaldaritza bikaina.
- **Lo egiteko aukerak:** Ostatu xarmagarriak, nekazal turismoak eta autokarabanetarako guneak (Laudion, Amurrian eta Urduñan).

INFORMAZIO BALIAGARRIA

Zuen egonaldia edo txangoa antolatzeko, hona hemen proposamen interesgarriak biltzen dituzten estekak (ibilbideak, asteburu-pasak eta turismo-bulegoen gomendioak):

Urduñako Turismo Bulegoa:

- Mendi ibiliak eta akzioa



- Gorobel mendilerroa ezagutzen



Amurrioko Turismo Bulegoa:

- Naturbideak eta ibilbideak



Ibilbide gehiago:

- Gure gida digitala



Gogoratu: Ekainaren 14an, ez galdu aukera.
ETORRI AMURRIORA, EZAGUTU AIARALDEA!

» Babestu **BERRIA**

Hezkuntza euskaldunak hedabide euskaldunak behar ditu.

Euskarazko egunkari nazionala da BERRIA. Nazioa du ardatz, eta euskaraz kontaktzen du mundua egunero.

Baina, aurrerantzean ere euskal kazetaritza independente eta kalitatezkoa egiteko, ezinbestekoa zaigu zure babes ekonomikoa.

Egin ezazu ekarpena!

araba euskaraz '26
Taupadak berpiztu!

Urteko ekarpena

100€

(0,27 euro eguneari)

Gazteen* ekarpena

30€

(*1,90 urtetik beherakoak)

Ekarpen berezia

120€

aukeratu zenbatetako
(urtean 120 €-eko gehiago)



BARAÑANO
LIKOREAK
BARAÑANO
BERMUTA


BABIO
HORTZ KLINIKA · CLÍNICA DENTAL

Maialen Martínez Fombellida
Ander Martínez Fombellida

 **Dionisio Aldama, 2**
01470 · Amurrio (Araba)
 **945 068 996 / 688 714 543**
 **babiohk@gmail.com**

CuadraBus

Egoera sozioekonomikoa: Aiaraldearen taupadak berpiztu ditzagun!

**AIARALDEAREN
ETORKIZUNA DEFENDATU**

Aiaraldeak bizirik badirau, batetik, eskualdean bertan errotuta dagoen eta erronka berriei egokitzeko gaitasuna izan duen lehen sektore baten taupadei esker izan da, eta, bestetik, 60ko eta 70eko hamarkadetan eskualdean izandako industrializazio-prozesuan sorburu duten enpresa traktoreen taupadei esker.

Azken urteetan, ordea, mantsotu egin dira eskualdearen oinarri nagusia izan den industria-sektore horren taupadak. Eskualdean esangura handia izan duten enpresa batzuk itxi egin dira (Lipmesa, Valvospain, Guardian, Glavista...), eta lanpostu berriak suntsitzeko mehatxuak iritsi zaizkigu orain (Maderas de Llodio eta Tubos Reunidos). Industria-eremuan gertatzen ari den lanpostuen galera luze eta amaigabea dirudien honek eragin zuzena du, nola ez, eskualdeko hirugarren eta lehen sektoreetan. Izan ere, Aiaraldeko langabezia-tasa erkidegoan den batz bestekoaren bikoitza izateak zuzenean eragiten du herritarren kontsumo-gaitasunean eta -ohituretan.

Aiaraldea emergentzia egoeran dago. Eskualdeko sektore ezberdinetatik, azken urte hauetan, behin eta berriz ozen aldarrikatu dugun bezala, eskualdeko egoera sozioekonomikoa berpiztu beharra dago!

Halere, abestiak dioen bezala, txarrenari onena atera diogu, eta panorama beltz honetan izan da argi izpirik: sektore ezberdinen arteko elkartasuna eta langile-klasearen antolaketa

kolektiboa ditugu adibide. Aiaraldeak ondo erakutsi du eskualdean badela bertan ikasi, lan egin eta bizi nahi duen langileria borrokalaria, eskualdean gertatzen ari den enpleguaren galera eta bizitzaren prekarizazioaren aurrean makurtu ordez, altxatu eta bere eskubideak defendatzen dituen.

Bakarrik ez gara gai, baina ondo asmatu dugu komunitateak eta kolektibotasunak ematen digun indarrak baliatzen, SOS Aiaraldea plataforma horren erakusleho. Gainera, Euskal Herri osoan oihartzuna izan duten hamaika ekimen, mobilizazio eta borrokaren protagonista izan gara.

Izan ere, 80ko hamarkadan beraien lanpostuen defentsan borrokatu ziren langileen oinordekoak gara. Egunero bizitza sostengatzen duten zaintza-lanetan dihardugun emakumeak gara. Ingurunearen zaintza gure ofizio bilakatu dugun nekazari eta abeltzainak gara. Herriak eta auzoak bizirik mantentzen ditugun merkatari eta ostalari txikiak gara. Duela 50 urte auzolanean Amurrión ikastola sortu genuen guraso utopikoak gara. Aiaraldean euskaraz ikasi eta lan egin nahi dugun gazteak gara. Eskualde honetara lanera eta bizitzera etorri garen etorkinak gara. Komunitatea gara. Aiaraldea gara!

Guztion artean, euskararen eta Aiaraldearen taupadak berpiztu ditzagun!

KOOPERATIBAK GARA.

SOMOS **batera**®

Kooperatiben eredia sendotzeko lanean ari gara,
Arabian enpresa- eta gizarte-garapenerako
erreferentzia izan dadin.

udapa

rpk

i+Med
COOPERATIVE
OF SCIENTISTS

Loramendi

AK aurrenak

GOROS
s. coop
construyendo
soluciones

LABORAL
kutxa

KONFEKOOP

≡ PATATAK ZURE PLATEREAN PREST ≡



udapa
≡ FÁCIL ≡

Ezagutu **Udapa FÁCIL** gama
osoa gure webgunean eta sare
sozialetan:

www.udapa.com



Zure platera
5
minututan